

anaitasuna

1979. EKO IRAILAREN LEHEN HAMABOSTALDIA. 388 Alea-60 pzta.

Valentin de Zubiaurre-ren
mendeurrena (?)
- BIDAIA BAT ESKUILARAT -





CAJA LABORAL. *Euskadiko*
Kutxa 

AZKUE BIBLIOTEKA
 EUSKALTZAINDIA
 BILBO
 3814
 22 OCT. 1979

AURKIBIDEA



4. Artikuluburua.
5. Nafarroa puskatua. Astaitz
6. Bidaia bat eskuilarat. J.S.
8. Pankarta bati buruz. Ekatxa.
10. Euskal kontsumismoa. Euskal iraultzaren bidean ote? Iñaki Deuna.
12. Diputatu foralak eta boterearen erotika. Lorentxo Saez.
14. Hama bost egun hankaz gora. I. Zabaleta, B. Zia.
16. Ulrike, Ulrike nork hil hinduen? M.A. Landa
17. Ibilaldi baten esperientziak. Iñaki
18. Biziaren arduraz. K. Santisteban
19. Neskatoen beldur izkutuak eta galdera bat. M.A. Landa
20. Feminismoa eta emakumeen literaturgintza. M.A. Landa
21. Herman Hesse - arima baten bizitza. T. Galarraga
22. Valentin de Zubiaurreren Mendeurrea? J. Sarrionandia
24. Laserraren erabilpena kimikan J. Elhuyar
26. Nola hartzen dute arnasa oilasko arraultzek. J. Elhuvar
28. Bertso Berriak Estatuari jarriak. R. Garai
30. Txillardegiren euskal gramatika. J.R. Etxebarria
32. Liburu berriak J.S.
34. Gurutzegramak. L. Trask



anaitasuna

KOORDINAKETA

J. R. Etxebarria

IDAZKUNTZA

J. Llerandi, T. Trifol

IDAZKUNTZA KONTSEILUA

J. Agirreazkuenaga, Andolin
Eguzkitza, J. R. Etxebarria,
Miren Izagirre, J. Llerandi,
E. Martin, Joseba Sarrionaindia,
T. Trifol, I. Urtasun, I. Zabaleta

ARABA

E. Knorr

BIZKAIA

J. Llerandi

GIPUZKOA

I. Urtasun, A. Oiartzabal

IPARRALDEA

M. Lanatua

NAFARROA

I. Zabaleta, B. Zabaleta

NAZIOARTEKOA

A. Eskisabel, M. J. Esteban, T. Trifol

IDAZLE ETA LANKIDEAK

J. Artzelus, X. Gereño, J. M. Torre
alday, X. Kintana, A. Eguzkitza, P.
Agirrebalzategi, Mariasun Landa,
J. L. Alvarez (Txillardegui), J. Men-
dizabal, E. Entziondo, S. Laffite,
M. Pagola, J. Sarrionandia, J. J.
Bakedano, Natxo de Felipe, F. Ala-
ña, J. Etxeberri, B. Barandiarán,
K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde,
J. R. Bilbao, J. M. Arzubiaga, K.
Santisteban, B. Atxaga, J. Idigoras.

MAKETAPENA

R. Zumalabe,

KOMIKIAK

A. Olariaga, I. Lauzirika, B. Zia,
X. Etxenike, Gentz, Monty

MARRAZKILARIAK

Ttua taldea

PUBLIZITATEA

ETA

HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA

Zabalbide, 68-entlo. BILBAO-6
Tfnoa: (94)4335808

MOLDIZTEGIA

Estudios Gráficos

Lege Gor. D. L. BI-1753-1967



autonomi
estatutua

“Ningún vasco bien nacido puede decir sí a una Constitución que no devuelva los fueros a Euskadi”. Hala egiten zen otoi gure Euskal Herri honetako hesi eta orma guztietan. Egilea, Eusko Alderdi JELtzalea. Hala ere, dudarik ez, konstituzio hori joko posible guztien artean posibilistena zen. Eman diezaiegun sinestea eta dezagun pentsa guttienezko dezentzia politikoan oinarriturik, konstituzioa baztertu, gaitzetsi edo abstentzioaren alde egin zutela haiek, euskal bozemailetako parte garrantzitsuena batera eramanez.

Forua eta ez foruak, Euskal Herriaren eskubide utziezinezkotzat jotzen da oraindik ere, berau, jatorrizko subiranotasuna baita, burjabetasunaren oinarria. “Nosotros preferimos hablar de burjabetasuna, rechazamos la palabra autodeterminación porque tiene connotaciones extrañas a nuestro pueblo”, buruzagi JELtzaleen deklarapenak dira. Guk ez ditugu burutu. Euskadiko Ezkerrak ere gaitzetsi zuen konstituzio berbera. Arrazoia berdin berdina.

Baina, hilabete batzu soilik iraganda, alderdi berberok subiranotasunaren gainetik kontu berriak dakarzkigute. Euskal Herriaren jatorrizko subiranotasuna galdu da Moncloako azken kontzentzuan. Gaitzespen horregatik Gernikako estatutua altxatu da.

Gernikako estatutaren atariko buruan ba zegoen nolabaiteko klausula bikoitza: “Euskadiren agintea herriagandik sortua da”. Berori ere, hainbeste koma eta puntuekin batera desagertu da onarturiko azken estatutuan, subiranotasuna konstituziopean geratuz. Haren itzalean oinarrituko da estatutu osoa.

Ez dugu nahi eztabaidarik gehiago. Urrats koalitatibo bat gerta daiteke Gernikako estatutua baina aipaturiko puntu horretan ba dakigu nolako den aurrerakuntza. Dezentzia politikoaren izenean, oso gutti bada ere, gauzak bere lekuan utzi nahi ditugu.

Anitz gauza artean, batzu onak eta besteak txarrak, Gernikako estatutuari baietza ematea eta Euskadiko berjabetasuna edo eta autode-terminazioaren alde egotea konponezinak dira.

Hau guztiau esanda, Anaitasunaren jarrera politiko hau guztiz autonomoa dela argi eta garbi geratu beharko da. Gure editorialaren bigarren puntuan honelaxe aipatzen dugu: “Euskal Herriaren berreuskalduntze, birbatze eta subiranotasunaren alde, ikuspegi berriemaile hutsari begira lan egitea”.

Ikuspegi berriemaile hutsez derraizugu hau guztiau eta Gernikako estatutuaren bidez gure nortasunaren berreskurapen apurra -neurririk tikienean balitz ere- ahalbidetuko balitz zenbait ikuspegitan, ongi etorri izan bitez azken berauk, osotasunaren ikusmoldea ezertan ere galdu gabe.

Abuztuak 6. Aurtengo oporretan Behenafarroara joan behar dugu. Donibane Garazi, Nafarroako Seigarren Merindadeko hiriburura goaz. Hemengoa zen Juan Huarte de San Juan jakintsua. 1.975. urtean argitaratu zuen bere liburu ezaguna: Examen de Ingenios para las Ciencias". Baita ere hemengoa zen Jean Barbier (1.875-1.931), apezka, euskal idazlea. Liburu hauk idatzi zituen: "Supazter chokoan", "Legende du Pays Basque d'apres la tradition" eta "Piarres".

Donibanetik Eiheralarrera (Saint Michel) Joanen gara. Herri honetako erretore zen Bernat Etxepare-k argitaratu zuen 1.545an "Linguae Vasconum Primitiae" liburua. Euskaraz ezagutzen dugun lehen liburu inprimatua. Aurtengo oporrrak euskal idazle zaharren herriak ikusten igaro behar ditugu.

Behenafarroako herri politikak ikusteko ametsak egin ditugu eta abiatu gara Leitzetik Iruñara gero Arnegin barrena Ipar Euskal Herrira joateko. Zubiri eta Erro igaro ditugu. Orain Auritzen (Burguete) gaude. Hemengoa zen Pablo Fermin Iri-garai, "Larreko", medikua. Idazle txukuna. Bere idazlan batzu ikus daitezke "Prosistas Nabarros Contemporáneos en Lengua Vasca" (1.958) liburuan. Bero dago. Auritzetik Orreaga aldera goaz. Kaminoa zuzen-zuzena, zelaia. Kaminoaren bi aldetan zuhaitzak. Zuhaitzek beren adarrez egindako tuneletik goaz. Ibañeta-tik igarotzean oroitu gara 778-ko abuztuaren 15ean euskaldunak Karlomagno-ren harmada txikitu zuteneko burrukaz.

Bazkaltzen ari gara Luzaiden. Zerbitzatzen ari den neskak gaztelaniaz eta frantsesez ba daki baina euskaraz ez. Gurekin behinik behin hitzik ere ez du egin euskaraz. Luzaideko semeak ziren Enrike Zubiri "Manezaundi" (1.867-1.943) eta "Boryel" bertsolaria. Euskal Herriko aldizkarietan sakabanatuak daude "Manezaundi"ren lanak. Batzu lehen aipatu "Prosistas Nabarros Contemporáneos"en bilduak daude.

Joan gara Arnegira eta anaiarteko muga lotsagarria igarotzen ez digute utzi. Lopategi gudaria hil dutelako manifestazioa omen dela Baionan eta hesia itxia dago. Frantziako kotxe erruz dator honuntz baina gu Nafarrak ezin gaitezke Nafarroan libre ibil. Parisek eta Madrilek nahi ez badute ezin gaitezke Seigarren Merindadera joan.

GOGOETAK

Itzuli gara Arnegitik Iruña aldera. Garrantiatik Oroz-Betelura bidean dagoen "Ariztoquia" (Haitz Tokia?) begiratokian gaude. Bista ederra da. Behera begiratu eta erreka zulo haundia ikusten da. Irati hibaia doa mendi artetik. Sortaldean Aribere ageri da. Sartaldean Garralda.

Gure historia, gure hizkuntza, leku ize-nak... dira inperialismoak jarritako hesien gainetik elkartzan gaituztenak. Etxeparek idatzi zuen lehenengo euskarazko liburua. Etxepare Nafarra zen. "Euskaraz

NAFARROA PUSKATUA



"Joan gara Arnegira eta anaiarteko muga lotsagarria igarotzen ez diaute utzi".



ialgi hadi plazara" zion. Etxeparek orain dela 434 urte. Ordurako Etxeparek ikusi zuen euskara etxe zulotik aterata gizarte-ra zabaltzeko beharra. Gaur oraindik abertzale askok entzun ez duten oihua.

Politiko abertzale batentzat zer da aurren-aurreneko bete beharra? Euskaraz ikastea, ez baldin badaki. Euskaraz baldin badaki, euskaraz hitzegitea mitin eta bilera guztietan.

"El Ingenioso Hidalgo Don Quijote de la Mancha" da Gaztelaniar literaturaren

lan nagusia. Euskal literaturaren lan nagusia Axular-en "GERO" da. Axular Nafarra zen: Urdazubiko semea.

Gaur Iruñan ez dago Axular-en izena daraman kalerik. Hemendik eskatzen diogu Iruñako udalari "AXULAR"en izena jar diezaión kale bati.

Nafarroako Diputazioa: egin iezaiozu estatua Axular-i Iruñan. Uste dugu Axular-ek Hemingway yankiak adina ohore merezi duela.

ASTAITZ

BIDAIA BAT

Donaphaleuko bide zelaitik, Oxkixeko lepotik, Oxagabia eta Erroimendin barrena, edo Izaban gairdi sartu zaitezke Zuberoara. Zuberoan herrialde berde bat izanen dukezu begien aitzinean. Etxeen teilatuak trinkoak direa, harbelez estaliak. Landetako berdean borda eta olhen kolore zuri eta ilunak ekhia sartalderuntz doalarik bortuan gairdi.

Bertze euskaldunak Zuberoara iristen direnean liluraturik geratzen dire, izan ere, halako giro arkaiko bat susmatzen da gauza orotan. Gu ere manexak gara ("Manex aldetik ote da onik haize hegoaz besterik"), gure hirietan burdinezko labe handiek irentsi dute natura eta gizarte zaharra, horregatik, zibilizaziotik at sentitzen dugu gure borua honelako lekuetan garenean. Zuberoa herrialde ederra da, baina xiberutarrek erran daukute hau ere galtzen ari dela, batez ere lanaren eskasagatik. Lanak gütü biziastzen, lanak gütü hilazten. Hain zuzen, Basabürüan 1.940 eta 1.950 artean jaio direnen artean o/o82 juaak omen dire atzerrira lan bila. Eta Zuberoak 1.800 urtean 30.000 bizilagun bazituen, 1.970ean 18.000 bakarrik zituen.

Konpara dezagun, Gipuzkoak 1.800an 106.000 eta 1.970ean 650.000 biztanle. Despopulazione horrekin batera uskara ere galduz joan da. Maule, Atharratze edota Barkoxeko karriketaz zaila da euskaraz elestatzen entzutea. Gazte guti mintzo da euskaraz, zaharrak bakarrik elestatzen dire euskaraz frantsesez baino aisago.

Baina xiberutarrek ez du sarri ahanzten kanthoria zaharrak abesten izigarri untsa, berrogeita hamar urtekoa eta besamotza: Hagola, Eskiulakoa. Erran zeaukun hurrengo egun batez bere etxerat jiteko eta hala egin genuen bi egun barru, arratsalde. Barkoxetik partitu genuen. Oloroeko bidetik abiatuz. Euskal Herriko muga gibelean utzi eta Biarnorat sartu ginen Barkoxeko zubia trabesaturik. Zazpi bat kilometra geroago Eskiulara ailegatu ginen. Herri ttipia, ederra, frontoe bat eta bizpauru ostatu. Galdetu genuen Hagola non bizi zenez eta erakutsi zaukuten bidea. Segitu Oloroeko bidea, aitzinerat, bi kilometra barne ezkererarat hartu, aldaz beheiti, aldaz goiti eta hantxe zen: Hagola borda.

Ama zen soroan, amona ilurdira eta karezazü bat. Laster helduko zen Hagola. Bere izena, izaitzez, ez da Hagola, etxearena baizik, bere izen ttipia Jean da eta izena Dulau. Amarekin bizi da bakarrik bordaltekoro soroa eta kabala gobernatzen. Elhestan hasi gara arratsalde eta solasetan eta kantetan ihardun dugu ilunabarrera arte. Etchahun zaharraren

Etchahun Iruri, Berakarrats eta bertzeren kanthoria ederrenak entzun ditugu. Biarnoko herri euskaldun honen bizimoduaz, Eskiulako egoeraz galdetu dauogu Hagolari. Gazteak lan egiteko Eskiulatik kanpora joan ohi direnez:



Hagola,
Jean Dulau

Larraine Gainean



ESKIULARAT

- Bai, hánitz bai.

Baina badire gazte laborariak ere?

- Ah! Laborariak ee bádira, gaztiak ee egoiten dirénak badira. Beheko etxian báda bat, hogeita híru úrte, bena beste semia jaínik da lan egitera.

Pariserat eta halako lekuetara joaten direa?

- Eztire habóro juiten, Parisérat ézta habóro juiten. Bena Oloroera bai.. Gerla ondún Eskiulaik partitú da Parísén, hirurogeita laúan. Eskiúlako séme bátek eginázi zin pastorála. Eta izan nintzen ikústén, bena ezin ikúsi. Etzen ili bat ee izánén... Sala animéle batean, sala ederrá beitzen. Bazién berrogei, zombait etorríta, hamabóst Eskiuláko. Bázién, erran nik, edo eztákit, hámar Larraínéko, eta bestík herri ootakok...

Baina orain guti joaten dira Pariserat?

- Ez, ézta Pariséra nihur ee juitén, bat bera ee ez. Badu urte hánitz ézta nihur ee jún. Bena ordín, gerla ondúan déna juitén zen Parisérát. Eta erraitén duté han eta Pariséko eskiulatárrak, nik entzun duten zaharrér Eskiulako Parisen zaharrer, dénak juntatuz geroz herri hau beno handiágo dela. Eskiulatárrak Parisékúk juntátuz geroz hében beno habóro dira. Herri handigo da han Eskiúla, populazionian. Bena orai nihur ee ezta juitén.

Eta joate zirenetatik ez da inor itzul-tzen?

- Bai, hanitz bai. hanitz jiten dira.

Aisa da jitea hain herriska eder batetara. Hagolak erraiten dauku, halaber, Eskiulako gazteak euskaraz mintzo direla beti, Atharratzen eta Barkoxen baino arras agehiago. Larraine, Altzai eta Eskiula direla euskaldunenak. Eskiulatarrak administracionearentzat Biarnokoak direla, baina ez direla biarnesak euskaldunak baizik. Hagolak dioskunez hirur mintzaira dira Eskiulan, lehen euskara, bigarren frantsesa eta hirugarren biarnesa. Aspal-dian biarnesa zen bigarrena, baina frantse-sak hartu dauko lehentasuna kazeta, tele-bista eta eskolarengatik. Euskarak ere gal-du du hainbat frantsesarekiko azken ur-teetan.

Hagolak erraiten dauku, halaber, Santagraziko neskatiak ederrak direla, izterberoak eta begi zohardiak. Arno godalet



bat eskuan eta sarri hasten gara oleka kanta artean. Matalaz pastoreleko kanta bat abesten dauku Hagolak:

Nurk erran ote zian gaskoin da Eskiula gaztek úkatu die zaharren odola.

Ez, eskuara bizi da betian bezala eta orok laidatzen eskualdun arbola.

Botzik girade Eskiulan egin baikira fidelak...

eta abesti eder honen ahaide xarmangarria gure baitan genuen atxikia hainbat oren beranduago ere. Ilunabarrean Hagolari eta bere amari agur erran daegunean eta Barkoxerat itzultzeko bidetik abiatu ganean gu ere oso botzik ginen eta nahi genuke goraintziak eman eskiulatar oroer, eta milesker Hagola eta bere amaren karesari.

J.S.

EL FASCISMO, UNICO ENEMIGO DE LA LIBERTAD DE EXPRESION

En la pasada madrugada del día 18 de agosto, fiestas Patronales en Portugalete, fueron objeto de una salvaje agresión componentes de HERRI BATASUNA de este pueblo a manos de conocidos militantes del P.N.V., en número no inferior a cincuenta personas.

El desarrollo de este atropello fué a consecuencia de una pancarta, que bajo la fachada jocosa de las fiestas, criticaba el Estatuto de la Moncloa y exigía a su vez AMNISTIA, retirada de las F.O.P. y derecho a vivir en Euskadi, así como la voluntad de HERRI BATASUNA de estar en todo momento unida al Pueblo, aspecto éste, negado por el P.N.V., cuando en el Ayuntamiento de Bilbao mandaban a los "moros a sus chabolas". Es de notar que todo el contenido de la pancarta ha sido ampliamente difundido en la prensa escrita y fotografiada.

Esta crítica no fué asumida en modo alguno por dicho partido, que en Portugalete al menos, tiene fuertes connotaciones racistas, sectarias y antiobreras, y que a falta de una mínima capacidad de respuesta racional, -críticas en pancartas, escritos, panfletos u otras formas- aplicó ese método de que impenitentemente hace gala: la fuerza física, la agresión a golpes y la destrucción de objetos ajenos a su propiedad, en este caso la pancarta, etc. escudándose como se ha dicho en un principio, en un número elevado de personas.

Muy lamentable es que por parte de estas "personas" se utilicen como pantalla a mujeres y ancianos, -no es la primera vez, ya que en un pleno del Ayuntamiento de Portugalete así lo hicieron-, para poder dar motivos de provocación y respuesta contundente, (léase palos a diestro y siniestro), contra esos "rojos que se llaman abertzales y traen doctrinas extrañas al Pueblo Vasco".

Estos defensores de mujeres y ancianos, y que aprovecharon el momento propicio que suponía el haber sólo dos hombres en la txozna de HERRI BATASUNA, tienen nombres de sobra sabidos, como los Beitia, Rueda, Urizarri, Arostegi, Cobos, Sra. de Sierra, Pilar Urrutia, Laura Fernandez, Chechu apodado "El Algarrobo" y un largo etc. que todo Portugalete conoce. Lamentable es que el llamado "Algarrobo" tuviese además la indecencia de amenazar a un miembro de HERRI BATASUNA, concejal del Ayuntamiento, Gorka Martinez, en plena calle, al domingo siguiente, día 19.

Es claro que todo este equipo sólo tiene un apelativo: MATONES, matones de la peor calaña y el más bajo instinto.

De hoy en adelante nos debemos limitar a contemplar al PNV como compañero de viaje en sus métodos de Fuerza Nueva y de cualquier otro grupo de similar índole.

Siempre consideramos la crítica como una parte fundamental de la Libertad de Expresión y método insustituible para llegar al conocimiento de las causas y efectos lo más real posible, observando que la represión sobre la crítica, y más aún, con métodos como los usados por el P.N.V., lleva a la total anulación de esta Libertad de Expresión, por tanto a la anulación de cualquier Libertad en el seno del Pueblo y de los trabajadores.

La incalificable acción llevada a cabo por los militantes de P.N.V. en Portugalete, dedicados a insultar con las más bajas groserías, tanto en sus órganos oficiales de prensa como en los comunicados, y mucho más en la calle, nos lleva a confirmar que efectivamente nuestros oponentes son cada vez más claros en este contexto de lucha por la ruptura democrática, y estos oponentes, o mejor dicho, estos enemigos, son la burguesía que representan, pues ya que duda cabe, es el P.N.V. partido que defiende los intereses burgueses, así como su padre político a nivel de Estado, la U.C.D., como cadenas de transmisión de la explotación social y nacional a cargo del sistema capitalista. Así pues, es el P.N.V., quien liquidando sus últimos conceptos nacionales y humanistas, hace gala de los refinados métodos de represión burguesa. No nos hacen falta ya en Euskadi las F.O.P. para reprimirnos: tenemos suficientes con los niños de E.G.I. y los ertzaiñas del P.N.V.

Somos conscientes de haber dado en el clavo, de poner el dedo en la llaga, vista la respuesta del P.N.V., por lo que nos reafirmamos más sólidamente en nuestros principios de combatir este "Abrazo de la Moncloa" con que el P.N.V. y la U.C.D. nos tratan de ahogar a los trabajadores y al Pueblo en general, bajo la aceptación por la fuerza del proceso reformista burgués, y que a pesar de las amenazas y de los golpes que suframos a manos de esta nueva policía, la de los matones de Kaiku y boina, continuaremos con la denuncia de esta nueva opresión contra el Pueblo Tra-

Behin, Portugaleteko jaiak ziren eta, Herri Batasunako militante katxondo batzuri pankarta bat bururatu zitzairen. Pankarta gogorra zela?...

Zoritxarrez, basati "inkontrolatu" batzuz, P.N.V.ko "hertzainak", apurtu egin zuten eta uretara bota. Baina berdin da, kontakuko dizuet nolakoa zen. Inoiz ikusi duzue San Ferminetako pankartarik? Ba, modu horretakoa.

Ezker partean gizon batzuz jatean (edo musetan; ez nago seguru...) Hauen gainean aingeru baten (Forgendroen antzaz) pankarta batez: "El kurrusko orain". Beheko partean hertzain bat "moro" batzuz mehatxatzen.

Erdian, M. Herzog jota bat dantzatzen ari zen Rubial jaunarekin eta Suarez eta Garaikoetxearen eztaia, juxtu, tarta banatzeko momentuan.

Ezker aldean, zezen plaza batetan H. B.ko jendea (egileen hitzak...) Zakilixut, Marizikin, etab., bai eta txerritxu bat, "Que se vayan" kantatzen, zezenek polizien kontra jotzen duten bitartean, Bukatzeko, bertsolari bat Estatutuan buruz aritzen:

Estatutu bat digute
egin batzuek Madrilen
eta hementxe "txakur" gehiago
jarriko digute

Pankarta hori 17an, arratsaldean jarri zuten. Bertoko gauean P.N.V.ko batzuz joan ziren pankarta apurtzen, H.B.ko txosnuan bi militante zegoelarik. Enfretamendurik egon zen, noski, eta eskutara heldu zen. P.N.V.koak, hasiera H.B.koak baino gehiago ziren. Andra batzuz, probokatzen etorri ziren "hertzainak" heldu baino lehenago. Ingurutik zegoen jendea P.N.V. ko basatien kontra aritu zen eta azkenean hauek, burua makurturik joan behar izan zuten.


Hau zertan datorren artikulu buruarakin? H.B.k agiri bat atera zuen gertaera hau saltzen. Egia esanik, haundiesperen bat ere ba zegoen. Esaterako H.B.k esan zuen 50 zirela P.N.V.koak eta ez zegoen 49 baino gehiago. Hortaz kanpo, agiria nahiko objetiboa zen.

P.N.V.k beste bat atera zuen, gauzak aldrebez zirela esaten. Beno, lehenik beste bat atera zuen: "Comisión de Cuadrillas de Portugalete" fantasma batek, H.B.ri irain galantak botatzen. Baina funtsean bi agiritan gauza berberak diote. Sinatuta eta idazteko modua aldatzen soilik.

Lehen agiria iturburu ere ba zegoen argi. Nahiz eta P.N.V.k ez sinatu, Rueda eta Barral, P.N.V.ko militanteak jarri zuten herriko kaleetatik.

DEIAN P.N.V.ren bertsioa agertu zen soilik. Postaz bidali zioten, zertifikaturik, H.B.ren agiria eta dirudienez, bidetik galdu zen...

PANKARTA BATI BURUZ



P.N.V.k dionez, H.B.ko jendea 2 baino gehiago ziren. Txosnan ez zegoen jende gehiago. Geroago sartu zen jendea ez zegoen hor, poteka baizik.

Hain mingarri bazuten pankarta hori, zergatik ez zuten erretiratzea eskatu? Zergatik joan ziren ganeko ordu 2etan eta ez 10etan?

Zergatik zuten hain mingarri? "La pancarta que motivó el enfrentamiento entre nuestros militantes y los de H.B. no era una crítica jocosa del Estatuto de Gernika, sino toda una sarta de insultos a este Partido y a sus dirigentes más calificados". Pankarta horretan ez zen bakarrik PNVko jendea agertzen pixkat irri-garri utziak. PSOEkoa eta bai ere H.B.koa (txerria hain zuzen ere...) agertzen ziren. Beharbada zera izango da: Garaikoetxeak pankartan ez zuen "sex-apel"ik eta txerritxuak... oi, txerritxual, aingeru bat zirudín pottoloa...

Bertoengandik pentsatu ere ez. Portugaleteko PNVkoen artean ez dago bertsu horik ulertzeko gai dena...

Pankartakoa ez zen hor bukatu. Konpondu egin zuten eta Bilbora eraman. Hau eskegita zegoela, berriz, P.N.V.ko "hertzainak" etorri zitzaizkion pankartari, apurtzeko. Lehengoan ez zuten lortu, baina ez zuten etsi, ez. Hurrengo egunean lortu zuten eta uretara bota, badaezpada...

EKATXA

- bajador Vasco que se nos quiere imponer, así como la lucha por la consecución de
- unos mínimos democráticos -la alternativa de K.A.S.- que rompiendo la estructura franquista, nos permitan adquirir cotas más amplias de cara a la consecución de la liberación Social y Nacional de Euskadi.

Así pues, para este Comité de HERRI BATASUNA de Portugaleta, vista la identificación de los grupos políticos burgueses, debiera el hasta ahora llamado Partido Nacionalista Vasco, pasar a denominarse PARTIDO REGIONALISTA VASCONGADO, sucursal de U.C.D. en Euskadi. Creemos que esta denominación es correcta, dada la práctica política adoptada por este colectivo de claro espíritu represivo, liquidacionista del problema nacional vasco y de diáfana opción socio-económica explotadora.

COMITE LOCAL DE HERRI BATASUNA DE PORTUGALETE

AL PARTIDO NACIONALISTA VASCO AL PUEBLO DE PORTUGALETE

Ante la información aparecida en el diario Egin del pasado día 23 y en la hoja repartida en mano en varios pueblos, en la que se denuncia una supuesta agresión de militantes de este Partido a elementos de HB y se vierten toda clase de insultos, calumnias y mentiras contra nuestro Partido y en algunos casos contra determinados militantes nuestros, precisamos ante la opinión pública lo siguiente:

1. Que no nos sorprende el tono de bajeza, mentira y agresión constante que rezuma el escrito, porque es práctica habitual de la coalición HB en toda su andadura política en Portugaleta.
2. Que la pancarta que motivó el enfrentamiento entre nuestros militantes y los de HB no era una crítica jocosa del Estatuto de Gernika, sino toda una sarta de insultos a este Partido y a sus dirigentes más cualificados.
3. Que es totalmente falso que fueron dos los elementos de HB que se enfrentaron a nuestros militantes, siendo innumerables los testigos que presenciaron cómo el grupo de HB, encabezado por dos concejales de esta coalición, era muy superior en número al grupo de nuestros militantes en citado incidente.
4. Que revela un cinismo inusitado hacer un montaje de este calibre de un hecho aislado y presentarlo como modelo de violencia contra el Pueblo Trabajador Vasco, precisamente por una coalición como HB, que defiende la violencia indiscriminada ejercida por una determinada organización armada y que nada tiene que ver con la liberación nacional y social del Pueblo Trabajador Vasco.
5. Que es demagógico e incalificable manifestar que el Partido Nacionalista Vasco está identificado y defiende los intereses de la burguesía, cuando nuestros postulados socio-económicos son claros en este aspecto y nuestra meta es una sociedad vasca, libre, democrática, igualitaria y solidaria con los demás pueblos y nuestros militantes no pertenecen a los Consejos de Administración, sino que son una parte importante del Pueblo Trabajador Vasco.
6. Que somos claramente humanistas y estamos perfecta y públicamente definidos en contra de la violencia y de la pena de muerte, lo cual no es óbice para impedir que organizaciones como HB se dediquen a ofender y violentar a nuestro Partido o sus militantes y que responderemos con toda contundencia y severidad a cualquier provocación, sin necesidad de recurrir a mujeres y ancianos.
7. Que está clara la campaña iniciada por HB contra el Partido Nacionalista Vasco en toda Euskadi y que no tiene otro objeto que confundir a la opinión pública y predisponerla en contra del Estatuto de Gernika, única vía posible en estos momentos para el autogobierno y la recuperación de nuestra personalidad como Pueblo, y que ha sido elaborado no por el Partido Nacionalista Vasco, sino por la mayoría de los Partidos democráticos actuantes en Euskadi, excepto por HB, y que por tanto representa el criterio del sector más numeroso del Pueblo, opción a la que se opone el sector minoritario representado por HB, que trata de imponer su criterio con claro acento antidemocrático y totalitario, olvidándose del principio básico de la democracia y la libertad de expresión que es el respeto a las ideas ajenas.
8. Que HB, en vez de deidarse con tanto ahínco a dar consejos y certificados de matones, niños, burgueses, derecha, etc., lo que tenía que hacer es trabajar con los demás representantes del Pueblo para solucionar en la práctica los problemas que nos aquejan.
10. Es indignante ver cómo dicho Comité de HB recurre a la bajeza de citar apellidos e incluso asignar apodos a personas cuya solvencia y honestidad son de sobra conocidas en el pueblo, recordándonos con ello métodos represivos similares utilizados hasta ahora.

JUNTA MUNICIPAL DEL PARTIDO NACIONALISTA VASCO
(URI BURU BATZARRA-PORTUGALETE)

EUSKAL KONTSUMISMOA



EUSKAL HERRIA

Lana... lana... lana... lana...
 Hauxe da, alegia, "gure" egunoroko ogia, "gure" borrokaren mamia, "gure" pankartaren arima: lana, lana, lana...
 Zein lan den, hori bost axola. Garrantzitsuena lana dugu, bai lana. Lan egitean produktuak sortzen dira (era guztieta-koak, alegia) eta produktuok saltzean, guk, erosle amorratuok, kontsumista huts bihurtzen dugu geure burua. Kontsumistak geu gara: langile-erosleok. Guk egiten duguna geuk erosten dugu eta gainera bitarteko maitagarri batzu direla medio.

LANA - PRODUKZIOA SALEROSKETA - KONTSUMOIA ?

Hauxe da gure egunoroko katogia. Baina zein da kate madarikatu honen azken harmaila?

Agian, guk egiten-erosten ditugun produktuok, erabiltzen ditugu?

Agian, guk egiten-erosten ditugun produktuok, askatzen laguntzen gaituzte?

Gaurko gizarte puta hau kapitalista dela ba dakigu, baina termino horri "kontsumismo" hitzaren esanahi globala erantsi beharko litzaioke, erantsi beharko ge-

nioke, bi kontzeptu horik separaezinak baitira, separaezinak baititugu.

Alternatiba sendotzean hau guztiau kontutan hartzekoa da, bai eta honek beronek besarkatzen duen ere. "Denok" ezagutzen dugu kapitalismoak daukan indarra baina ba dirudi indar hori "politika mailan" zentralitaturik dagoelakoan gaudela; ba dirudi geure bururak "maila" berorretan murgildurik ditugula, hortik kanpo gertatzen dena sekundariotzat jotzen.

- Lemoizeko putetxe nuklearren kontrako burruka ba liteke maila globalean

EUSKAL IRAULTZAREN BIDEAN OTE?

egiten dugun burrukarik lehenetariko bat izatea. Eta ez dira "politikoak" izan burruka global hau bultzatu dutenak, ez-politikoak baizik, ekologistak baizik. Baina burrukak ez dira natura bezain armonikoak gertatzen, eta gaurregun Lemoizko putetxearen kontra bagoaz ere, bihar, behar bada, kandelak Iberduero-ri erosiko dizkiogu, eta gu pozik. Sakondu behar dugu! Burruka honetan apostu egin duguna ez da txantxetako! Burruka honetan gaurko zentzugabeko gizarte honentzako alternatibaren itzaropena ipinia dugu eta.

..... (ipini zernahi)
 - Bestalde, Euskal Herrian (Euskadin, politikoki) "Euskal irрати-telebista nahi behar dugu". Hau aspalditik entzuna dugu, baina gure etxean azken denboraldi hauetan gertatzen dena kontuan hartuz ez ninduke harrituko honelako zeozer entzuteak:

**"EUSKAL HERRIAN
 EUSKAL PROPAGANDA BEHAR
 DUGU ETA NAHI DUGU"**

eta hemendik datorkiguna:

"MORROSKO jaboia, zure arroparen peoia" (edo limoia, edo kabroia).

"TXILINDRON euskal detergentea, koladaren autoritatea".

"ZPLAST yogourth abertzalea. Topa ezak zure saria eta hator gurekin Disneylandia ikustera".

"Eskuak zimeltzen bezaizkin, erosi ezan TXIMINO garbigailua eta bitartean igurtzi ezan alua !!!" (honela balira sikieran, gaurko "sexualkeria" ez litzateke hain tabu).

..... "(asma ezak/n).

Batek baino gehiagok barre egingo dio honi baina ez pentsa guzurre denik, Bilbo-ko autobus gorrien iragarki batzu baino ez dituzue ikusi behar.

- Kontsumismoaren kontra jotzen ez ba dugu, ona gagoz!

Normalean, kapitalismoa botere politikoetan ikusten dugu, baina kontsumismoa NON ikus genezake? Ba da garaia, kontsumismoa guregan datzala ikusteko.

Gu kontsumistak gara; kontsumistak GEU gara. Nor da kontsumista? Zer gara gu? Gu kontsumista ala iraultzaile gara? (Alfabetatze ariketak bilera antzuetan egiteko, iharduteko). Gero, gertatu behar dena gertatzen ohi da: Multinazional



Kontsumisteen ibilaldia?

batzu (coca-cola) ezker abertzalearen gain bizi izaten dira (calimochu).

Ba dirudi "ideologia" "herri-jaietan" aparte uzten ikasia dugula: VIVA SAN FERMIN! MUSICA!

Azken batez, propaganda, saltzeko bide bat da. Guk egiten duguna saltzeko, Geuk egiten duguna besteok saltzeko (plural hurbilean ipintzen dut ze ba dakigu nortzu diren). Geuk egiten duguna eta besteok saltzen digutena GEUK erosteko bide bat.

..... (katogia etengabe doa...).

- Kolmorik kolmoena, ondokoa: UME KONTSUMISTEEN IBILALDIA (edo antzekoa). Hauxe dugu benetako pedago-

gia ikastoletan lantzeko, gurekin garatu diren prejuizioak gaurko umeengan errotik desagertarazteko pedagogia alegia, EUSKAL entpresa batek bultzaturikoa, eroski, hain zuzen ere. Baina hau, bost axola! Hau ez da politika, horrekin ez dugu masen kontzientzia aurreratuko! Garrantsituzena legeak aldatzea da (legeak aldatu ote?) eta EUSKAL LEGEA jarri, euskaldunok nahi duguna, bizitzeko behar ditugunak. Bestea muin-jate hutsa da, besterik ez. Horrela dago panorama edo horrela ikusten dut nik behintzat. Zuen erantzunen naukazue. Urrengorate.

Iñaki Deuna

Herriak aukeratu dituen pertsonen ideologiaren aldaketa izugarria gertatzen da, Bizkaiko Diputaziotik administratzen diren interesak eta beroriei dagozkien jarrera bereziak kasu. Norberak, behin baino gehiagotan galderak egiten dizkio bere buruari delako aldaketak zergatik gertatzen diren jakiteko esperoan.

Agian, adibide batzu eman liezazkiguke horrela konportatzeko adierazpideak emanez.

Horretaz, PSOEko ordezkariaren kasua dugu esaterako. Betidaniko telefonista izan da bera. Demokrazian oso berria da, PSOEn daraman denbora oso laburra baita, sartu berria beraz. Hala ere, diputatua dugu oraintxe eta denbora motz horrek ez dio orduan garrantzi asko ematen demokrazia dexente eta guttienezkoa aurrera eraman dezan. Baina ez noa ni horretara. Kondatu nahi dizuedana zera da: bere hitz egiteko modua aldaketa.

Emakumea "normala" zelarik, telefonoen arduraduna eta ez besterik zela esan nahi dut horrekin, bere hitzak oso arruntak ziren. Gu guztiok legez egiten zuen berba hark, handikutsukeria eta solas luzerik gabe. Orain aldiz, diputatu aukeratua izan denez geroztik han dabil gauza arrunten eta leloen esateko, hiztegi guztietako hitz zailenok erabiltzen. Norberak jakina, zera sortzen du ondorioztat: Herriaren kultur maila jasotzeko ardura politikoak eman eta kitto!

Ba dago baina, eredu gehiago. Horretako bat H.B.ko izan dugun pertsona bategan ikusi dugu. Kasu honetan itxura aldaketa askoz grabeagoa izan da. Langileon irudiz, pertsonaia hau koalizio horretakoa izanik, Diputazioan zeuden faxista guztiei egurra astintzen hasiko zitzailela alde batetik eta langileen eskaera eta bidezko errebindikapen alde lan eginen zuela bestetik. Baina ez, jezarriz zen mutila bere kadiran eta burmuineko hariak hasi zitzaizkion arraroki lehertzen. Handik lasterrera hasi zen Diputazioko funtzionari faxisten kontuei kasu egiten, langileen errebindikapenak ahaztuz. Zorionez, koalizioak Diputazioa uzteko aginduzion.

Zer gertatzen zaio honelako jendea-ri? Non daude hauteskundeetan egin ziren deklarapen polit eta handiak?

Ondoetako bat gerta lekieke: Botuemailekin fraude egitea -oso grabe grabe dena eta fikziozko zientzia litzateke- edo eta Diputazioko kadirak sorgindurik egotea. Mahai baten atzean jezartzean itxura aldatzen baitute, Jekill arrunt eta normal batzu bihurtuz.

Espekulazio arloan sartu garenez, soluziobide bat legoke kasu hauentzat. Fraudea egonez gero, botuemaileok ba dakigu zer egin behar dugun aurrerantzean, berriro presentatzeko muturrik edukiz behintzat.

DIPUTATU FORALAK ETA BOTEREAREN EROTIKA



Gaur egun hortxe dauzkagu eta udal garabiak ere ez lituzke mogitu egingo. Ez daude ba gustora! Botereak eman dien zentzazio faltsuak lagunduta, lepo gainerik so egiten diote gainera guztiari. Haueteskundekin alde egiteko esango dietenean miseria eta frustrazio bizian suntsituko dituzte beren buruak.

Diputazioko kadirak sorgindurik dauden suposizio fantastiko horri buruz, E.A.J.k du soluziobidea nik uste. Honetarako, alderdikeria guztiak aldean utzi behar ditu E.A.J.k, nik proposatu soluziobideari jarrai diezaion jo eta ke. Honela duzue:

Jesuita izandako baten bat dei ezazue, esaterako Artzallus jauna, diputazioan dauden deabru guztiak atera ditzan. Politik harremanetan garbiketa bat lortuko litzateke horrela. Ikusiko da ere, nola funtzionari gutti gelditzen da lanean, lanari lotuta noski, berrezagutu behar baita funtzionaririk askok diputadu berrirei koipea eman baino besterik ez dutela egiten, utilen eta baitez padakoarenak eginez.

Soluziobide horrek ez ezpalu bere finetara helduko niri gertatzen zaidan bakarra ur boltsa bat erostea dateke. Boltsa, urez bete, besaulki azpian ipin eta etxeratu, kadirek ez baitute behar ipurdirik azpia berotzeko, boltsek berdin egiten baitute.

Ezin bazter dezaket katxondeoa, ezin. Egunak joan eta egunak etorri eta, Diputazioarekin harreman hestuak dauzkagunok diputatuen ekintzak ez direla deuse-tan demokratizatu dakusagu gero eta hobe.

Lehen bezala langileak izorratzen dituzte. Orain demokrazian oinarrituta. Diputazioan errua berorixe da ez baitute barne estrukturarik aldatu edo berriztatu. Mac Carthi zalea ez nahiz ni baina garbiketa bat egin behar da zenbait funtzionariren artean. Gauza askotan funtzionariok dira arduradunak.

Ez dut uste soluziobidea denik lehengo diputatuek gauza guztiak abandonatu zituztela esatea. Funtzionarioei ere funtzionatzea eskatu behar zaie; eta funtzionatzen ez dutenak kaleratu eta akaboa.

Loretzo Saez

EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZEA.



© GRUPO

Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.
(2.000 a 100.000.) _____ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

Ordaintzeko era

Giro n.º _____ Cuenta corriente n.º _____

Bankoa _____

Deitura _____

Helbidea _____ Telefonoa _____

Hiria _____ Probintzia _____

egin

HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.

LAS PALMAS-en "PIROPOekin" ERNE!

Las Palmas-eko aireportuko enplegatu bat bota egin dute bere lantokitik, haren aurrean pasatzen zen emakume bati "hitz goxoak" esan zizkiolako.

Zoritxarrez, emakumearen senarra denda barrean zegoen, eta bertatik bertara entzun zituen enplegatuaren hitz goxoak.

Senarrari ez zitzaizkion gustatu lore horik eta denuntzia sartu zuen aireportuko zuzendaritzan.

Gauzak horrela, enplegatu egotziaren alde atera dira aireportuko beste sei bazar edo dendak.

Senarrak zioenez, gauza itsuskiak esan zizkion enplegatuak emazteari, eta honek dioenez, emakumearen edertasunak baizik ez zituen goraipatu.

A! Ahazten zitzaidan: senarra militarra da. Honekin zerbait argiturik dago.



ALEMANIAN ZENTRAL NUKLEAR BAT DESMUNTATZEN

Mendebaldeko Alemanian zentral nuklear bat desmuntatzen ari dira.

Dirudenez, bere teknologia atzeratua eta zahar-tua gelditu da, eta horrengatik ari dira desmuntatzen.

la urtebetez funtzionatu zuen, experimental gisa, eta 1.974 urteaz geroztik itxita dago.

Ez nintzateke deus ere harrituko, Lemoizera eka-riko balute teknologia hori eta makinaria.

Horrelako gauzak eta handiagoak egiten ohituak baitaude Iberdueroko agintariak.




TEATROAN ARKAKUSOAK

Geronako teatroan gauza harrigarri bat gertatu da. Udal teatroan ospatu zen azken kontzertuan, jendea arkakusoz bete zen.

Dirudenez, Geronako Udalak ez zuen desinfektatu aretoa, urtero egiten duen bezala, eta jendea eseri bezain laster, han hasi ziren arkakuspak, salto eta salto.

Ez dakit, jendeak bertan jarraitu ote zuen kontzertua bukatu arte; baina jarraitu baldin bazuten, animaliekiko maitasun handia izan behar zuten.



LEITZAKO ARTADIAN AMODIO LANETAN

Leitzan bukatu ziren jaiak, eta artadiak guztiz zanpatuta eta etzanda gelditu dira.

Abuztuan ospatzen dira urtero jaiak Leitzan, San Tiburtzioren omenez. Kasualitatea baldin bada, ere, pertsona batek bakarrik darama patrioiaren izena. Leitza berezia baita.

Hasieran artadiak aipatu ditut eta horren zergatia adieraziko dizuet.

Urtero, herriko zenbait gaztek, eta batez ere "Soroko joxe Antoniok" izen zerrenda bat osatzen dute. Zerrenda horretan mutilak eta neskak parekatu egiten dira (bakoitza nahi duenarekin parekatzen da) eta artadiko partzelatxo bat eskeintzen zaie.

Zertarako artadiko partzelatxo hori? Ba, erraza da: amodio egiteko, larru jotzeko eta xirri egiteko.

Partzelatxo guztiak numeraturik daude eta horrela bikote bakoitzak badaki (segur jakin ere) bere txokoa libre dagoela nahi duten ordurako.

Artadian dena libre da, baina kontuz ibili behar da artazoztorrekin, zulo guztietatik sartzen baitira eta min egiten baitute.

Hurrengo urterako badakizue. Leitzara joaten bazarete, artadirako txanda eskatu.



ULRIKE, ULRIKE, NORK HIL HINDUEN?



Zoritxarrez, egun, Alemanian, nori axola zaio Ulrike-ren erahilketa

Alemaniako Stuttgart-Stammheim presondegian, 1976.eko maiatzaren 6an, Ulrike Meinhof, Baader-Meinhof taldearen buru famatuena, hilda agertu zen. Orduan, Alemaniako agintariek, Ulrike Meinhof bere burua urkatuz hil zela aldarrikatu zuten. Baina, delako "suizidio" honek, noski, ez zuen jende askorik konbentzitu, urte batzu lehenago, misterioski, hain segurtasun handidun presondegi hartan, Ulrikeren taldeko beste hiru lagun (Jean Carl Raspe, Gudrun Ensslin eta Andreas Baader) tiro batez hilik agertu baitziren. Orduan ere, Alemaniako agintariek beren buruak hil zituztela esan zuten, baina askok eta askok zenbait galdera egin zuen. Adibidez...Nork eta nola eskuratu zituzten harmak? Oraindik ere, galdera honek ez du erantzunik izan.

Ulrike Meinhof-en heriotzea argitzeko, nazioarteko komisio batek ihardun zuen. Eta orain Maspère frantses editorialak azaldu berria du komisio horrek azaldu tako txostena(1).

Horretan nahiko garbiro adierazten da Ulrike-ren heriotzea erahilketa bat izan zela, hots, itozteak sorturiko bihotz geldiketa izan zela heriotzearen kausa eta ez urkapenarena. Ez zeukan puskaturik, urkatuen moduan, bizkar hezurreko bertebrarik, eta gainera, Ulrike-ren ernaltze organoetan hematoma aurkitu zituzten, bere hanka biak handiturik, eta esperma arrastoak bere kuloetan. Hau guztiau, hafi eginiko bi autopsietan agertzen da.

Estatuko agintariek, zehaztasun hauk eta txostenean agertzen direnak, nahiago ukan dituzte ahan-tzi. Alemaniako Parlamentuan ez da behin ere Ulrike-ren heriotzearen gorabeherarik erabili izan. Zertarako?...Ulrike Meinhof-en heriotzea buruhiltze bar izan zen eta kitto!

Urte batzu pasa dira eta oraindik heriotze hau argitu gabe dago: **NOR SARTU ZEN ULRIKE-REN GELAN MAIATZEKO GAU HARTAN?**

Hilda gero, eragozpen moeta

guztietakoak jarri zituzten hilketa hura argitzeko. Bi egun geroago eta haren gela berpintatua izan zen, arrasto guztiak estaliz, senide edo abokatuak joan baino lehenago.

Klaus Croissant abokatuari (Ulrike-ren testamentuaren betetzaileria) edo haren ahizpari ez zaie behin ere utzi Ulrike-ren gorpua ikusten edo haren gelako inbentarioa egiten.

Dena dela, aipaturiko txosten horretan, nahiko garbi adierazten da Ulrike-ren heriotzea ez zela izan buruhiltze bat erahilketa bat baizik. Tamalez, txosten horrek ez die itaun guztiei erantzunik ematen: Nork hil zuen Ulrike Meinhof?...Hor dago kakoa, argiezina.

Eta gainera, zoritxarrez, egun, Alemania, nori axola Ulrike-ren erahilketa?

MARIAXUN LANDA

(1) "La mort d'Ulrike Meinhof". Rapport de la Commission d'enquête, Francois Maspéro editoriala.

IBILALDI BATEN ESPERIENTZIAK

1.978.eko martxoan egindako ibilaldi baten esperientziak kontatuko ditugu Marokorantz abiatzeko asmoa dutenei begiratzuz. Esan behar den lehenbiziko gauza bidai-agentziak ateratzen dituzten "panfletuak" alde batera uztea komeni dela da.

Sarritan entzuna izango duzue Herri nahasi hau (Maroko) lapurren paradisia dela; bai hori egia da baina gobernuaren aldetik bakarrik. Kaletako jendea ahal duen neurrian zuen gauzak lapurtzen saiatuko da eta hori leku guztietako gauza da ez Marokokoa bakarrik zapalkuntzaren ondorioa hain zuzen.

Marokon dagoen giroa ezagutzeko hiri nagusietatik at joan behar da nahiz eta hiri hauk ezagutzea interesgarri izan (Marrakech, Fes, Casablanca...) kontraste dela eta, eta dauden kontraesanaz jabetzeko.

Monumentuzaleak baldin bazarete Rabaten ba duzue zerikusirik (mausoleoa...). Bestetik giro politikoa interesatzen bazaizue zoazte Fes-a zeren eta herri kulturala baita, bertan unibertsitaterik famatuenak direlarik. Hara jo eta laster aurkituko duzue zuekin eztabaidatzeko prest dagoen norbait batik bat estudianteak (ezkerretakoak).

Marrakech-en ikusitakoa guztiz ezberdina da. Parte berria Europako edozein hirirena bezalaxe da. Parte Zaharra "Medina" delakoa, horixe da interesgarriena: sugeen enkantzailak, eskorpioenak, tximinoekin dabilzanak, ipuin-kontatzaileak, berritsuak... Medinako harriak saltzen den janaria dastatzea interesgarritzat jotzen dugu honetan, batez ere "cous-cous" delakoa. Jo eta ke! On egin!

Turismo aldetik ere ba dago zer esanik. Itsasaldea guztiz turistikoa dugu. Barnaldea berriz interesgarriena jendea nola bizi den jakiteko. Mapa ikustean berdez edo zuriz dauden kaminoak hartu behar dira zeren eta gorri daudenak generallak baitira eta "zibilizazioaren" fokotarantz doaz.



Lapurren paradisia da marokoko, baina gobernuaren aldetik bakarrik.

Natura aldetik hor dugu Atlas mendilerroa hirutan zatitua:

— Beheko Atlas:

goiko partean Mediterraneoaren al-
/dean.

— erdikoa:

Fes eta Marrakech hirien artean.

— goikoa:

Marrakech-tik basamortura doan
/parte.

Azken parte honetan Toubkat mendia dugu (lau mila ta piku metro). Mendi honen beronen maldan Imlil herri ttikia dugu, Asni-tik 14 kilometrotara. Nahiz eta mendira ez jo leku oso interesgarri. Aldea berberiar honetan berberiar herria nolakoa den ikus daiteke. Hemen

trukea nagusi dugu. Zernahi lor dezakezu trukez: janaria, edaria, harriak, (amatistak, basamortuko arrosak...), sandaliak, alabastrozko irudiak... Txo neska! "defentsa" orna baldin baduzue nagusi bihurtuko zarete herrixka hontan!!

Natura aldetik Atlas kenduz Ouzoud-eko urjausiak dira. Marrakech-tik Fes-erako bidean (Ikus Mapa). Zibilizaziotik urrun daude oraingoz behintzat.

Gu Marokora joan ginen. Beharbada zuek beste leku batetara joan zarete konta ezazue zuen esperientzia!

Euskara eta euskaldunok JALGI GAITEZEN MUNDURA.

Iñaki

BIZIAREN ARDURAZ

Geure gizartearen katramiletan barneratu bezain laster, argi ikusenezake ispilu puskatu hauetako ha maika giza-izpirik.

Ez dugu behar gizona dimentsio unibertsean; gorputz mailan ikustearikin nahikoa litzateke.

Egia esan, eta agian gezurra esan ere bai, "homo sapiens"-arengandik gaurko "homo alienatus"-arenganaino ez dagoke amildegi jauziezirik. Denak ditugu zubi zuzenak.

Gizona eta gizona. Horra hor kausitu zitzaigun egia haustezina, hilezkorra. Nahiz eta gure egoera honetan ez ei diogu kasu handiegirik errealtateari egiten.

Baina errealtateak errealtatedun dirau, eta aurpegia eman beharrean aurkitzen dugu geure burua. Errealtatean bizi behar eta errealtatekide beharrez izan.

Izan ere, ezbeharren moztueroek ez ligukete min baino egingo. Eta sentikorrak gara, ezin dugu (denok) fakir haragia ukan.

Hiltzen ari gara, hauxe bai zuria-zen zuria. Eta gure eginbehar bakarra, eta emankorra apika, suntsimendu honetako karia bilatzean legoke; betiko antzu jarraiki nahi ez dugun bitartean behinik behin. Maiz, halabaina, zail zaigu, oro, horixe ere.

Demagun instan batez, zazpi zir- kuluen zazpi giza-guneak eriden ditugula, eta, (irudimenari astinduz

berriro) zazpi gizaire horiengan bizi- zaren zazpi giltzak. Zein izango genukeen erantzuna, burutapena- ren hegaldia? Nik neuk, ez nukeen sinestuko neure aurreko ezertxorik, nahiz eta argiaren argirik argiena izan.

Egunetik egunera, urtez urte, menderik mende doakigun gorputz- itzalaren proiektzioak, jadanik ez dakusa ikustekoa, ez eta erraxena ere.

Gizartearen katakunbetan sartu- rik, gero eta beldurrago gara, geure adimenaren mugikortasuna ebaki- tuz doa, aurrerapena handitzen den heinean. Beldurregi gara, geure NOR ezagutzeko ere, geure NORta- suna. Eta horregatixe ezin pentsa, ezinpentsa liteke gataxka osoaren, globalaren, ZERA eriden. Gure gutasunak berak galerazten dizkigu posibletasunaren bidexkak, eta errealtate horretantxe murgildu be- har, beti behar.

Zertarako orduan giza-mailako aztertze sakon eta mamitsurik? Zer- tarako eta zertatik?, banan-banan ezintasunean bargaudeke.

Gaurko giza-suntsimenduaren mamia uler ahal izateko, gizarte osoaren desegintza egiaztatu behar- ko genuke. Hasi zero-tik eta egin- kortasan guztietatik aniztu, sekuen- tziabakoitza grabatuz.

Eta ez dakit berriro basamortuan geundekeen.

Liburu askotan ikusi dudanez, denek ahalegintzen dira NONDIK gatozen jakitearren, frogarazteaga- tik, baina ez du inork erakusten zer- gatik gara jaiorik.

Zergatik? Zergatik? Zergatik?... hona hemen galdera. Eta zein eran- tzuna?

Zergatik-aren inguruan matemati- ka oso bat itxura liteke, ez agian, matematika exakta, baina bai ge- roaldiko matematika. ZIUR.

Zergatik jaio gara eta zergatik ez gara jaio.

Elkarren aurkako bitasunaren aleak. Bigarrena izango balitz itaun- keta mila argudio asma zezakeen edonork, oso erraxak baitira eze- tzak. Eta ezetza baten alboan ez da jakinminik irteten.

Maiz, halabaina, ez jakintasuna- ren jakinduria izan daiteke. Ezetza ahalguztidunak kateak milaka puska ditzake.

—Laket al zaik bizi-tza?

—Ez.

—Zergatik?

—Ez zekiak.

Ezetza horren bidez fite ezaba- tzean da istilua. Baina erantzuna baiezkoa balitz?

Nola azaldu bizi oso baten gora- beheak gero balantzan ipintzeko eta horrela hitzaren egiatasuna ate- ra?

Ez duke merezi baina, hainbeste txotxokeria zipristindu. Zer lor- nezake dialektika txar batekin?

Politika eta ezpolitika, bizi eta ez bizi, heriotza eta ez heriotza; agian orok bere ezetza?

Hor legoke biziaren ez bizi. Na- hiz eta zergatik jaio ez jakin, biziko bagara ez bizi bat beharko dugu, eta horretaraxe mundu deituriko hau.

Eta hortik atera zezaketen erlij- jioek beste mundu baten ametsa. Heriotza izateko ezheriotza behar. Baina ezheriotza hori, heriotza be- ra, bizi bera baino zerbait mingo- tsago balitz?

Hainbeste txalaparta korapilo- duntsuren hatzaparretatik ihes egi- teko, ez dugu bizi baino. Nahi-ta- nahi-ez bizi behar dugu.

Bizi erreproduzitzeko bizi behar dugu. Eta bizi erreproduzitzean galdurik gaude.

BIZIAREKIN AMAITUKO BA- GENU ZAPALKUNTZAREN AZ- KENA LITZATEKE!!!

Karlos Santisteban

NESKATOEN BELDUR IZKUTATUAK eta galdera bat



Haurrek, bildurra zer den ondo ezagutzen dute. Pelikula bat dela, kale ilun bat dela, trumoiak direla... ongi asko dakite gure haurrek sentimendu hori zer den. Haurrei noiz-nola-zergatik pasatzen duten beldurraz galdetuz gero, ongi erantzungo dizuete... Itsasoak koltxone-ta eraman zuen egun hura, nolako beldurrez esnatu ziren amets txar hori izan ondoren... mendian galdu ziren arratsalde hura...

Guk geuk ere, holakoak ezagutu ditugu. Haurren konfidentziak entzutean, parre txiki bat egiten dugu geure artean. Egun, guzti hori, superatuta daukagu. Pelikulek ez digute beldur izugarriarik sortzen eta mendian galduz gero nolabait aterako ginatkeela larrigune horretatik pentsatzen dugu.

Dena dela, ba daude beste testimonio batzu, parre izkutu hori sorrarazten ez didatenak. Abididez, nire gelan jasotako hauk: "BA EGUN BATEAN, ZINETIK ATERATAKOAN, GIZON BAT GURE ATZETIK IBILI ZEN. AUTOTXOKEETARA JOAN GINEN ETA GURE ATZETIK ETORRI ZEN. HANDIK ATERATAKOAN, NE-

REAREN ETXERA JOAN GINEN ETA GURE ATZETIK ZETORREN ETA BESTE EGUNEAN ERE BAI.. HOLAKOETAN BELDURRA PASATZEN DET".

(Idoia, 10 urte)

"Zinean, gizon batek heldu egin ninduen eta esan zidan: 'Si vienes conmigo te doy 100 pts' eta nik ezetz esan nion. Orduan gizona hasi zitzaidan heltzen eta ni koska hasi nintzaion gizonari. Eta gizonak soltatu egin ninduen... Jo!, pasa nuen bildura..."

(Jaione, 10 urte)

"Egun batean, ikastolatik etxera nindoala gizon bat nire atzetikan zetorren eta nik atzera begiratu nuen. Bera geratu zen. Ibiltzen hasten nintzen eta bera ere bai. Aulki batetan eseri nintzen eta bera ere bai. Etxera joan nintzen eta dana kontatu nion amari. Beldurrez nengoan".

(Rosi 11 urte)

"Ea noiz pasatu dedon bildurra? ... Ba egun batean, gizon batek pentsegitu ninduen. Etxera nindoala niri deika hasi zitzaidan eta ni korrikan eta bera atzetikan eta ni korrika eta korrika..."

(Eli, 10 urte)

Testimonio hauen aurrean, ezin dut parre egin. Are gehiago: Ez dut garbi ikusten zer egin behar du-dan. Zer egin behar dugun. Garrantzia kendu?... Baina garrantzia du! Haurraren hegoak moztu, atxilotu etxean, etengabe zaindu? Horri ere ez deritzot ongi.


Andereñoook, amek, ezin dugu edo ez dakigu oso ondo haur hauei nola lagundu. Ezin diogu gertaerari garrantziaririk kendu, zeren bihar, agian, antzeko edo zerbait okerragoa gertatuko baitzaie. Nola jokatut beharko genuke?

Gaurkoz, galdera hau egitea besterik ez zait bururatzen.

Norbaitek, beharbada, erantzun dezake.

(Mariasun Landa)

FEMINISMOA ETA EMAKUMEEN LITERATURGINTZA



Joan den ekainaren 22an, Gazteizko Ikastetxe Unibertsitarioko E.K.T.-k antolatutako, Axular liburudenda, mahainguru bat. Holako mahainguru gure inguru kulturalean gauza berri bat dela garbi dago. Hala ere, mahainguru hartan parte hartu zuten emakume idazle batzuk (Amaia Lasa, Arantza Urretabizkaia...) aspalditik argitara emanak zeuzkaten beren lanak. Zer gertatu da, ba, urte hauetan, bilkura hau edo gerora izan daitezkeen beste batzuk, posible bihurtzeko?... Nere ustez, aspaldidanik eta maizago ospa zitezkeen gertakari hauk, gaur egun ospatzen badira, kalean eman den emakumeen burruka feministaren eraginagatik izan da.

Beste zenbait arlotan, nabarmena da eragipen hau. Hor daude alderdi politiko guztiak, korrika eta presaka eginiko zenbait errebindikapen beren programetan sartuz, eta baita ere gizonezko listetan, emakumeren bat edo beste aurkeztuz...

Emakumeak, beren opresioari buruz hartzen eta hedatzen ari diren kontzientziatze mailak, hau da, borroka eta errebindikapen feministek, guttienez, emakume euskaldunaren marginazio politiko eta kulturala argitara ekartzeko eta nabari agertzeko balio izan dute. Eta beren baz-

tertzea edo ausentzia ez dela bazterte kasual edo inuxente bat adierazten dute.

Badira urte batzuk Virginia Woolf-ek adierazi zuela, idazten duen emakumea, kalean emakumeak jasaten duten egoerarekin osoki loturik dagoela. Kalero egoeraren eragina idazlearengan azpimarratuz eta alderantziz ere. Sukaldeko lau hormen artean kateaturik aurkitzen bada emakumea, txikitandik jasotzen duenak ez badio, emazte eta ama izatetik aparte, beste biderik eskeintzen, bere anaiek ikasketak egiteko dituen erraztasunak berari uko egiten bazaizkio, berriro Virginia Woolf-en hitzetan, ez badauzka "gela, bat, berea, eta 500 libra... orduan ez dago euskal emakume idazlerik. Agian, erdi eroturik dagoen bat edo beste, bai!... bere kabuz aritzen dena eta inongo garrantziarik ematen ez zaiona.

Gure kasu konkretuan gainera, gure hizkuntzan analfabetuak izateak eta hizkuntza, praile konbentuetan gordea izateak eta ez monja etxeetan, oztupoak handitu besterik ez ditu egin.

Arrazoin sozio-politiko edo historikoak edo nahi denagatik, gure literaturgintza nahiko kaskarra baldin bada, gainera, esan beharra dago erabat gizonezkoena dela.

Orduan, honek zera pentsarazten dit: Sakonki begiratu, gure literaturgintza ez da zerbait osoa, inkonpletoa baizik. Literaturgintza horretan, gure herriko jendetza erdia baztertua dago. Non dago emakumeen ahotsa, non munduari buruz eman diezaigukeen atzoko eta gaurko emakumeen ikuspegia?... Garbi dago, liburutuan behintzat ez. Baina hau ez da gertatzen, noski, gure kultura, emakumeen kulturarik ez dagoelako... izkutaturik, marginaturik dagoelako baizik. Hala ere, arrasto batzuk aurkitu daitezke. Gelditu diren zenbait olerki, ipuin, edo bertso, bainan izenpetu gabe, noski! Baina, beharbada, gai honek beste arazo batetara eramaten gaitu. Hau da: Emakume euskaldunen kultura propio bat, ba ote dagoen... edo nolako den eta abar.

Bainan hasieran planteatu dudana zera da: Emakumeen esnaera honek, gizonezkoen mundu honetan pertsona gisan bizitzeko daraman borroka zer eragipen izan duen, edota duen, emakume idazleengan.

Alde batetik, gaur egun, emakumeen eta emakumei buruzko liburuak SALDU EGITEN DIRA. Beraz, argitaratu egiten dira. Publiko zati batek publikazio hauek eskatzen dituela esan nahi du honek. Eta hau, estimulo handi bat da, noski, idazlearentzat. Hemendik sortzen diren kritikak, komentarioak eta abarrrak, egilearen lana zabaltzeatik aparte, bere obraren aberastea eta sakontzea dakarte.

Bestalde, eta neure irudipenerako garrantzitsuena eta aipatzeko dena, FEMINISMOAK LITERATURGINTZAREN HIZKUNTZA MAILAN DUEN ERAGINA DA.

Idazleak erabili ohi duen tresna bera, hau da hizkuntza, zalantzan ipini baitu feminismoak. Nagusi eta dominatzaile den gizonezkoen hizkuntzak, nolatan emakumezkoena kolonizatzen duen nabarmen utziz. Emakumeen baloreen mundua, emakumezkoen esperientziak, betidanik gizonek dominatu duten hizkuntza eta erabilkera mota batetan, ematea eta transmititzea ea posible den, planteatu du feminismoak. Zalantza honek, bide berri batzuk urratzera eta bere lanaren era berplanteatzera eramaten ditu zenbait idazle. Eta nere iritzian, oso onuragarriak dira gauza hauek guztiak. Emakume idazle asko hasiak dira jadanik, emakumez emakume bezala idazten, orain arte inoiz egin ez den eraberritan. Eta honela esan genezake, emakumeen literatura honek, feminismoaren mogimendua argitu eta indartu egingo duela. Bai kasu batetan eta bai kasu bestean, literaturgintzak irabazten du.

Mariasun Lande

Hurtzarotik hasi eta bizitzaren ideiaz pentsamendu sakon bat lortu zuen arteko joeraz ihardun genuen aurrekoan. Hemendik aurrera H.H.-ren egintzen eduki guzua izpirituaren zorientasuna lortzea da. Hau izango da Hessen obraren arazorik garraatzitsuenena.

H. Hesse-en bigarren etapa hau bere kindalarri sakonen markaturik dator. Kindalarri hauek, aurreko literato idiliko-burjes-aren biziiza utzarazi zioten eta haroko inguramen sozialetik kanpo bizi zen izaki problematiko bat bilakarazi zuten. Bigarren etapa hau **Damian** (1.919), **Azken uda klingsor-en** (1.920), **Siddharta** (1.922), **Estepako otsoa** (1.927)... e.a.-etan zabalki dokumentaturik dago.

Obra hauek bi azpimarratu behar ditugu: **El lobo estepario** eta **Siddharta**. Lehenengoan giza zorigaitzen azterkari, bere galbideetan zoriontsu eta bati bat, gizakiaren barne borroka azalduz aurkitzen dugu H.H. Siddharta, berri, giza zoriona lortu ahal izateko era zuzena deskribatzen edo bideak adierazten diharduela esan genezake. Gizonak bere buruari jarraitu behar dio eta erabiltzen duen guzua baztertu.

Garai hartan, H.H.-ren pentsakera gogortzen da. Alemania nazian bizi izan zituen urteak, nazionalismoaren ideia eta mugek gogortzen dute eta bere idazti guztiak arrazen eta muga gainetiko gizateria bat lortzearen nabari dira.

Bere bizitzaren hirugarren etapa honetan serioski hartu behar litzatekeen utopia bat eratzen saiatzen da. Gizona barrerari azalduko zuen "opera" sortzeko lehen asmoa baztertu eta "utopia errealista" batez lan egiteko ideia hartzen du. Lan sakon honen ondorio, **Txirtxilu jorkua** (1943) izan zen.


Geroztik, Hermann Hesse-ren bizitza jokabide honetan eta bere etika baieztatzen jarraitu zen.

1.946-an, Nobel Saria eman zitzaion, bere berezitasuna eginkortasuna ez, baina jarraibidea dela esan genezake; bere bizitzari iruzur egin gabe, jokatzeko jakin zuen jarraibidea.

Hermann Hessek jainkoa aurkitu zuela esan genezake eta hau, gainera, bere barnean. Jainkoari jarraitu zitzaion beti, bere jainkoari, eta bere izpirituaz ados bizi izan zen. Hau da H.H.-ek gizonarengan gehien balioztatzen zuena eta horregatik gertatzen zaigu hain erakargarri bere pentsakera.

Bere bizitza osoa esnatze haste bat izango da eta esnatzea, bere burua ezagutu eta giza mailan gordetzen zuen lekua aurkitzea izango da.

Horrelakoxea zen Hermann Hesse. Adimendun abere sakon bat, bere buruaz zalantzatua, baina bere izpirituaz sinestoduna. Bere burua ezagutzea eta ezagutu



HERMANN HESSE-ARIMA BATEN BIZITZA (2)

nahi zuen han-hemenkariare bizi, bere zainetan zehar bihotz barneraino iritsi eta bat ere bere bihotzagatik hil

Herman Hesse 1.962-ko abuztuaren 9-an hil zen Montagnolan. Bere izateaz

ez da hilobi hotz bat besterik gelditzen, baina bere pentsamendua ondorengoen-tzat gelditzen da, eta ez da inoiz ahaztu-ko.

Txemi Galarraga

VALENTIN DE ZUBIAURREREN MENDEURREA?

Hau idazten duenak, Valentinen jaiorearen fetxa bi aurkitu ditu: 1.879ko abuztua, eta bestea, 1.884ko uztaila. Guretzat, bigarrena da fiakgarriena, idazle gehien lenengoa ipini arren. Zeren eta ohar hauen zioa 1.879ko abuztukoa izan dan, guk jarraituko dugu, eta hemendik bost urtetara, beste behin ospatuko dugu gure pintorearen mendeurea.

Garaien, Euskal Herriko txoko politenariko batean, jaio zen Ramon de Zubiarre, eta han pintatu zuen, (han eta Castilla, Segovian, Salamancan etab.), bere obra ezagunenak gure Balentinek. Han ere, ondiño tente dago, bere etxea, pintatzen zuen gela, "caballetea" etab. Oro ikusi genuen, Zubiaurrean lobarri esker.

Hemen, argazkietan etxe barnean dau den koadro eta pinturak ia sekula erakusi ta izan ez direnak.

Valentin hona zetorren urteko, udan, pintatzen. Bera Madrilen jaioa, (aita musikalaria ospetsua izanez, eta hara deitua), Bizkaiko, Durangaldeko pertsonaiak eta paisaiak pintatu zituen. Bere anaia, Ramon (mutugorra, Valentin lez) osterantziraz, ez zen agertzen Garaitik eta Durangaldek, zeren eta bere emazteak ez zuen asko jmaizatzen gure eskualdea. Valentinek bai, eta Durangotik berriatik, eta beste herritik zebilen maiz, modeloak eta ardo godaletak bilatzen. Hemen pintatutako koadroekin laster izan zuen arrakasta ospetsua Espainako pintura lehiketa eta sarietan; Europan zehar baita: Alemanian, Belgikan eta azkenaldian, Ameriketara joanda, han ere izan zen bizkor ezaguna. San Fernandoko "Bellas Artes" akademian, bere aitaren tokia ez tali zuen, eta Alfonso XIII erregeak bere erakusketa bat inauguratu zuen, argazki batean ikusi dugun bezala, eta nondik ikus bai ezakegun zer axola lortu zuen Espainaldian arte mailan.

Hirurogei urteetan ezkondu zuen, (Garaiako erroreak esana, bere amari plazaz emateko) Pilar Elejoste emakumearekin,





argazki hauek ia sekula ez dira erakutsita izan agerian.



baina heriotzak hatzeman zuen berehala. Mende honetako euskal pintoreak, Arrue, Urrutia, Aranoa batzutan etab, lar folkloristak esan dute izan zirela, eta egia esanaguk ere honela pentsatzen dugu. Baina Zubiaurre anaiak folkloristak direla esan dutenok erruhandia dute eta ez dute deus ere bere pintaera ezagutzen. Alde batetik, Valeriano Bozalek, Valentin sartzen du, edozein hipotetiko eskola errealista espainola, bera, bere ikuspegi

zentralista eta "marxista" erabiliz. Baina, errealismo hori, guretzako, ez da beste errealismo espainolarekin parekagarria; zeren eta Valentinen koadroek ez baitute Solana edo Castelao Galizian dituzten sentimendu eta esangurak. Errealismoak edozein espresio edo indar utsa irudietan eduki behar du. Valentinenegan al ba dago nolakoren bat erretratuetan, bere obrak, oroz konpururatuak; ez du kalifikatibo hori merezi.

Valentinek gai euskalduna edo Gaztelaniako erabili zituen. Eta denatan, Javier de Bengoëtzeak dioen bezala beti agertzen zaizkigu, enabardura poetikoak eta sinbolistak, Puvis de Chaavanne-engan bezala. Nork esango luke "arrantzale txiroa" obra errealista denik? Valentinen pertsonaiak beti daude bakarrik. Nahiz eta talde baten barnean ageri, bakoitzaren mundua, mundu ezezaguna eta misteriozkoa da besteentzat.


Erretratuak eta paisaiak, zero urdinak nodei oriz beteak, neskatilla edo atsoen begietan dirdiratuak. Beren jantzietao margo zuriak eta moreak, ortzaitza urrundak eta ilunak, arratsaldeko ordu magikoan. Orok konposatzen du sentimendu eta sentsibilitate sinbolista bat.

Pertsonaiak beti daude ge'idirik eta isildurik. Begietatik eta aurpegi ororekin adierazten dituzte bere arima paisai erdian. Beharbada, pintorea mutugorra izateak edukiko zuen zenbait eragipen pintaera horretan?

Hemen ditugu ba, Zubi

Hemen ditugu ba, Zubiaurren etxean ohostu genituen koadroak. Denon artean, askok ez dute ikusi argirik, bere etxe barruan baino. Lehengo aldiz argitaratuak, erakutsiak, hona dakarguz, eta omenaldi txiki bezala balio beza.

J. S.



Kimika dugu transformazio molekularrez arduratzen den zientzia. Transformazio hauen ezaugarri nagusi bat energi kopuru ezagunen galera edota gehiketa da. Aldaketa kimikoak ezin dira maila fundamental batetan ulertu eta aplikazio praktikotara zuzendu, baldin eta erreakzio kimikoetan agertzen diren energi kopuru espezifikokoak ez baditugu ezagutzen eta kontrolatzen. Ontzi batek bere barnean dituen atomo edo molekulak era normalean exzitatzen badira, honetarako bero edo presio altuz erabiliz, gertatuko den erreakzioa mailaka osatuko da, alde batetik nahi dugun sustantzia lortuz, baina baita beste zenbait azpiproduktu ere. Erreakzioa guk nahi dugun direkzioan gerta dadin, kimikoak sarritan beste sustantzia batzuetaz baliatzen dira, katalizadore izendatzen direnak hain zuzen. Sustantzia hauek era askotan agertzen zaizkigu. Adibidez, katalizadore bat metal bat izan daiteke, baina baita ez metal edota konposatu organometaliko bat ere. Zer esanik ez solido, likido edo gas eran ager daitekeela.

Ez dago urruti eguna, produktu kimiko bat lortzeko behar diren tenperatura, presio eta katalizadore egokien kalkulu enpirikoa orain alkimia bezain zaharra irudituko zaiguna.

Kimikaren helburu nagusienetako bat lotura kimiko determinatu batzuk hautsi edota ahultzea denez gero, logikoa dirudi horretarako beharrezko den energia, maila edo maiztasun egokienean bideratua izan dadila.


Aldaketa energetikoen kontrol hau egun poliki poliki egiaztatzen ari da laserren erabilpenari esker.

Laserrak energi iturriak ditugu, baina energi iturri oso bereziak: ultramore, ikusgai, infragorri edo mikrouhinen edozein uhin luzeran energi iturri bortitzak eskaintzen dituzte. Laserraren propietate karakteristikoak (monokromatitasuna eta intentsitate handia) aproposak ditugu erreakzio kimikoak probokatzen ala katalizatzen dituzten energi aldaketa espezifikoen kontrolarako.

Jadanik laserrak kimikan sortu duen eragina neurtu nahiz eta honela bere etorkizunaz ideia bat egin nahiean, komenigarria da jakitea xehetasun gehiagoz laser baten energi aportazioak uda aldatzen duen molekula, atomo eta elektroien energia. Ikus dezagun nola gaurko teknologia kimiko konbentzionalaren mugak gaindi edota ebata daitezkeen laser sistema egoki eta apropos bat erabiliz.

Erreakzio kimikoak bitarteko asko eta baldintza oso desberdinen pean gertatzen dira. Ezaguna da zenbait erreakzio kimiko bat batean gertatzen dela, erreakzio horrek behar dituen gas, gesaldura edo solidoak alkatu bezain azkar hain zuzen.

LASERRAREN



Erreakzio hauek ez dute energi aportaziorik behar kanpotik, eta honegatik, ez dira egokiak laserra aplikatzeko. Beste erreakzio batzuk, eta seguraski gaur edo etorkizunearan arreta industrialak duten ia guztiak, bero, presio edo katalizadore baten beharra dute edota guzti hauen konbinaketa batena. Sail honen asmoa energia erreakzio kanale aproposari eskaintzean datza, eta ez lehen bezala beste erreakzio kanale posibletan alferrik galduz. Laserra energia kopuru garrantzitsuak maiztasun edo maila energetiko determinatu batetan emititzeko gai denez gero, transformazio kimikotarako erraminta zehatz batetan bilakatzen ari zaigu.

Laserra aplikatu daitezkeen espektro elektromagnetikoaren eremu nagusi bakoitzak, hau da, ultramoretik infragorria, propietate determinatu edo jakin batzuek azaltzen ditu energia eskaintzeko eraren arauera. Atomo eta molekulen propietate nagusienetako bat gorputz hauek energia kopuru koantifikatu batzuetan emititzen

ala jasotzen dutela dugu. Atomo edo molekula batek energi kuantu bat jasotzen duenean, energia gutxiagoko maila batetik energia handiagoko beste batetara pasatzen da. Jauzi hau, noski, handia ala txikia izan daiteke eta atomo edo molekularen propietateak aldatuko dira kuantuaren energiaren balioaren arauera.

Beraz, garbi dago laser iturri batek molekula bati energi kopuru zehazki kalkulatu bat eskain diezaikeela, honela bere egoera energetikoa maila batetik beste batetara pasaz. Maila elektronikoko jakin bat dardar egoera energetiko askoz osatuta dago; dardar maila bakoitza dira egoera energetiko askoz. Azken urte hauetan espektroskopiak informazio kopuru handi bat eskini digu ezagutzen ditugun atomo buztien egoera energetikoei buruz, hala nola mailaka molekulei buruz ere.

Maila energetikoak zehazki ezagutzea nahita ezkoa dugu laserra aplikatu nahi badugu, zenbait egoera energetiko jakinak

ERABILPENA KIMIKAN

exzitatu behar direnez gero erreazio kimikoa lortu ahal izateko. Laserra baino lehen, kimikoaren aukera bakarra erreazio kimiko bati energia eskaintzeko bero iturri konbentzionala zen. Egia da bero eta argi iturri konbentzionalak nolabait kontrola daitezkeela; emititzen duten radiakzioa iragazki batzuen bidez aukeratu. Baina hau energiaren zati handiena galduz lortzen zen. Laser batek eskain dezakeen energi fluxua edozein arartetan, ararte berean iturri konbentzional bat erabiliz lor daitekeena baino milioika edo hilioika aldiz bortitzagoa da. Hone-lab. laborategiko laser eskas batek askoz fotoi gehiago emititzen du azalera unitateko eguzkiak baino uhin luzera berdinean eta azalera unitateko.


Orain arte esandako guztia irakurri ondoren, suposa daiteke laserraren aplikatzeak kimikoen amets guztiak ase ditzakeela, erreazionagaiak nahi duten eran exzitatzeke -elektronikoki, dardarki edo biraka- aukera eskainiz, eta erreazio bat hasieran aukeratutako eran kontrolatzeke, azpiproduktuak sor ez daitezen.

Baina praktikan, laserraren kimikak, mundu honetako beste gauzak bezala, zenbait oztopo aurkitu du, amets horik erabat ezin egiaztatuz.

Atomo edo molekula batek radiakzioa kuantu diskretuen eran har dezake, baina ez edozein egoera energetikotan, baizik eta mekanika kuantikoak onartzen dituenetan bakarrik. Fotoien absorbatetarako atomo edo molekula hori oso maila energetiko altuetara eraman dezake. Azken finean, absorbitutako energiak atomoak elektroik bat edo behiako galtzea ondortzen du. Era berean, molekula bat zatitan edota azkenik bera osatzen duten atomoetan banatuko da.

Guzti honek, laserra erabiltzen duen kimikoari galdera nagusi bat sortarazten dio: zer gertatzen da laserrak atomora eraman duen energi gehikeriarekin? Energia segidan zeharkako kanaletatik galtzen bada, erreazioa ez litzateke inoiz gertatuko, eta, egiten badu ere, oso poliki aurreratuko da.

J. J. Elhuyar



Laserrak komunikabieetan apcikatzea mundu berri bat sortzen ari da.

HIZTEGIA:

ararte intervalo
azpiproduktu subproducto
bitarteko medio
eremu campo
ezaugarri característica
ikusgai visible

infragorri infrarrojo
iragazki filtro
jauzi salto
kopuru cantidad
kuanto cuanto
lotura unión
maiztasun frecuencia
ultramore ultravioleta


NOLA HARTZEN DUTE ARNASA OILASKO-ARRAULTZEK

Gauza jakina da hegaztien arraultzaek ez dutela kanpotikako laguntzarik behar hegazia sortzen ari denean, beroa ezik. Behar duen janari, mineral, energi iturri eta ura bertan daude, arraultza barruan. Beraz, oilaskoa edota den aberea dela, egin behar duen gauza bakarra beroa eskaini eta tarteka tarteka arraultza mugitu da, umekia ez dadin azalera atxiki.

Halaz ere, arraultzari osagai inportante bat falta zaio: oxigenoa. Oxigeno hau beharrezkoa da sortzen ari diren zelulen makinaria metabolikoa hornitzeko, eta ondorioz, desarroilatzeko. Baina nola hartzen du arnasa arraultzak? Inguruko oxigenoa hartzen al du, ondoren dioxido karbonikoa kanporatzeko?

Gure mundu honetan, arnasketa prozesua honela betetzen da: lehenik isurgai bat arnas hartzen dugu, eta isurgai honen barruan dagoen oxigenoa birika edota braukietan odolera pasatzen da. Aldi berean, odoleko dioxido karbonikoa isurgaira pasatzen da, ondoren kanporatuz eta zikloa berriro hasiz. Bai birikak eta baita braukiak ere muskulo batzuk eragiten dituzte. Eta eragin honen maiztasuna, ezaguna den bezala, gure metabolismoaren beharrak zuzentzen du. Aldiz, hegaztien arraultzetan ez da arnas hartze mugimendurik nabari eta ez dago ezta ere aire-korronterik bere barruan, oxigenoa behar den lekuetara eramango duenik behintzat. Honen ordez, arraultzak difusioz hartzen du arnasa. Difusio hau, azaleko milaka poro mikroskopioen bidez gertatzen da.

Poro hauen esistentzia lehenik frogatu zuena Edimburgoko Royal Societyko partaide zen John Davy izan zen, 1863an. Honetarako arraultza urez betetako txarro batetan ezarri zuen, ondoren hutsponpaz ur gaineko airea kanporatuz. Ohartu zen arraultzaren azalean gas-burbuilak sortzen zirela, eta honela ondoriotu zuen azalean zulo txiki batzuk



behar zutela egon.

Gasak azala difusio-prozesuaz zeharkatzen du. Prozesu hau oso ezaguna: molekula kontzentrazio altu batek kontzentrazio txikiago batetara joateko joera du. Berdin gertatzen da munduko hainbat fenomenorekin: beroa tenperatura altutik bajura joango da beti. Difusioa gas-molekulen energia zinetikoari ezker gertatzen da, honela arraultzak bere bernean duen energia metabolikorik gastatu altua, eta oxigeno-molekulak barrura sar-

tuko dira. Era berean, baina alderantziz, gertatzen da dioxido karbonikoarekin. Gas-aldaketa honen abiadurak ba ditu bere mugak, hauek poroaren azalera, luzera eta azala zeharkatzen duten gasen kontzentrazioak izanik hain zuzen.

Arraultza barruko airearen hezetasuna kanpokoa baino handiagoa izanik, lehen esandakaren arabera, ur-molekula batzuek ere kanpora aterako dira (ohar gisa esan dezagun ur-molekula bat oxigeno-molekula bat baino txikiagoa izaten de-

la). Animaliek, normalean, ura bere barruan mantentzeko hainbat sistema desarrolatu dute. Antza denez, arraultzak ura galtzeko diseinatuta daude, baina, hori bai, erritmo kalkulatu batetan. Txita sortzeko behar den ia energia guztia gorringoko koipe-erreserbatetik lortzen da. Erretako koipe gramo batetik ia ia beste hainbat ur metaboliko sortzen da. Beraz, txita handitzen doan eran, arraultzaren ur-educiera erlatiboa ere goruntz doa, galtzen ez bada. Arraultza jarri zen orduko ur-educiera erlatiboa arraultza hausten den mementukoa bezainbatekoa behar badu izan, kalkula daiteke nola jarri orduko arraultzaren masaren 150/o gutxi gora behera ur eran galdua behar duen izan. Eta bai baserritarrek eta baita gai hauetaz kezkatzen direnak, aspalditik dakite ur galtze hau erabat beharrezkoa dela txita ondo jaio dadin.

Ba dakigu arraultzak 21 egun egon behar duela berotan. Epe honetan 60 gramotako oilo-arraultza tipiko batek 6 litro oxigeno hartuko ditu, 4,5 litro dioxido karbono eta 11 litro ur-lurrin kanporatuz aldi berean.

Bistan da arraultzak masa ur eran galtzen badu, eta, guk dakigunez ez zaio ezer sartzen, azkenik arraultzak gutxiago pisatuko duela. Hain zuzen 51 gramo. Txitak, aldiz 39 gramo bakarrik pisatzen du.

Inoiz arraultza gogor bati azala kendu badiozu, ohartuko zinen jadanik azala egiazki azal bat eta bi mintzez osaturik dagoela. Kanpoko azal honen osagaia karbonato kaltzikoa dugu, zutabe antzeko kristalez osatuta. Beraz azala azalera diskontinuo bat da, alde batetik besteraino zeharkatzen duten zuloak agertuz. Zulo hauek ditugu lehen aipaturiko poroak. Mintzak, aldiz, fibra organiko osatutako sare batzu ditugu. Halaz ere, bi mintzak ez dira erabat berdinak. Bata bestea baino lodiago da.

Azalak dituen poro hauk dira gasak alde batetik bestera pasatzeko duen bide bakarra. Hala ere, poro hauk ez dira beti erabilgarriak gasarentzat, materiale organiko ala ezorganikoak estal baititzake. Azido baten bidez arraultza kontuz garbitzen badugu, gutxi gora behera bere azalera 10000 poro dituela ohartuko gara. Kopuru hau arraultza batetik bestera alda daiteke. Espezieak ere zerikusirik badu. Arraultza bakoitzak duen poro-are erabat inportantea da, prozesuak automatikoki funtzionatu behar baitu. Poro gehiegi badago, oxigenoa sobran egongo da arraultza barnean, baina era berean, ur gehiegi galduko da, deshidratatuz. Azalera txikitxo bada, aldiz, txita ito egingo da oxigeno faltaz. Oreka bat lortu behar dugu, txitaren hazkundera optimoa izan dadin.

Arraultza jarri ondorengo aste edo ateterdian oxigeno gutxi kontsumitzen du. 10 eta 14.egunen artean, ugalden gogor bat nabari da, eta arraultza eskain dezakeen gas elkarraldaketa maximora hel-

ganean daraman diamantearen bidez, lehen aldikoz inguruneke airea arnas hartuz. Hemendik aurrera ez du oxigeno problemarik izango arraultzatik ateratzeko egin behar duen azken esfortzurako.

Ikus dezagun, anekdota gisa, beste hegazti batzuen arraultzen pisuak: txikitik handira joz, kolibri batena dugu denetan txikiena, gramo laurden bat pisatzen duelarik. Egungo hegaztien artean handiena, berriz, abestruza dugu. Bere arraultzak 1,5 Kg. pisatzen du batz beste. Duela gutxi arte esistitzen zen beste hegazti bat Madagaskarren, elefante-hegazia bere arraultza baten pisua 9 Kg. taraino heltzen zelarik.

Bistan da arraultza handi batek txiki batek baino elkarraldaketa handiago bat eskatuko duela. Hau dela ta, arraultza baten konduktantzia, (egunero galtzen duen pisua barruko eta kanpoko ur-lurrin presio diferentziaren arteko erlazioa) handitzen doa bere tamainuarekin. Baina ez da linealki handitzen: masa 10 aldiz handitzen bada, konduktantzia 6,5 aldiz bakarrik ugaltzen da.

Bigarren ondorio interesantea honako hau dugu: masa 10 aldiz handitu arren, poroak 2,7 aldiz bakarrik handitzen direla. Hau, hain logikoa ez badirudi ere, esplikatu daiteke: azalaren lodiera alde batetik arraultzaren pisuak eta bere gainean ezarriko den hegaztiarenak mugatzen du. Baina ba du bigarren muga bat ere, eta, hau, hain zuzen, txita jaiotzerakoan bere mokaz apurtzeko adinekoa izan behar duela da.


Fic-en legea aplikatzen badugu, hau da "poroaren azalera bere, konduktantzia eta poroen luzeren arteko biderkadura da", poroaren azaldera $2,7 \times 10,5 = 17$ aldiz handiagotzen da arraultzaren masa 10 aldiz handitzen bada.

Garbi dagoela dirudi arraultzaren azala eta txitaren arnas hartzearen beharrak oso bertatik lotuta daudela. Bestalde, hegazti baten arraultza oso eredu ona dugu gasen difusioa aztertzeko. Agian inoiz, hau ondo ulertu ondoren, esplikatu ahal izango dira pertsonen biriketan gertatzen diren difusio-prozesu konplexuak.

J.J. ELHUYAR

HIZTEGIA

AIRE-GANBARA	Cámara de aire
arnas hartu	respirar
atxiki	pegar
gas-burbuila	burbuja de gas
hezetasun	humedad
huts-ponpa	bomba de vacío
isurgai	fujido
osagai	componente
ur-educiera	contenido de agua



duko da, hau da, 600 mililitro eguneko. Balio hau da guk gutxi gora behera 2 minututan erabiltzen duguna. Kontutan hartu behar dugu arraultzak 10000 poro mikroskopiko duela gas-elkarraldaketa honetarako. Kalkuluak eginez, segundo 20 billioi (2×10^{12}) molekuta oxigeno sartzen dira, aldi berean 14 billioi molekula dioxido karboniko eta 12 bilioi ur molekula aterez.

Txita hazten doan eran, geroz eta oxigeno gehiago behar du. Bestalde, orain bertan esan dugu arraultzak bere poroen bidez ezin omen du 600 mililitro oxigeno baino gehiago elkarraldatu. Nondik lortzen du, bada, txitak beharrezko duen beste oxigenoa. Soluzioa erraza da: 19.egunean txitak bere moko aire-ganbaran sartzen du, bertako airea erabiliz. Ekintza hau oso inportantea da, txitari birikak aireztatze aukera eskeintzen baitio. Momentu honetatik aurrera, txitak oxigenoa bi bidetatik jasoko du: azaletik lehen bezala eta aire-ganbaratik bestalde. Sei ordu beranduago gutxi gora behera, txitak azala hausten du, moko

BERTSO BERRIAK ESTATUTUARI JARRIAK



Moncloa-ko Estatutuari buruz, mila gauza entzun da. Batzuren eritziz, oso gauza ederra da, gure arazoaren Konponbidearen hasiera dela esanez.

Beste batzu guztiz aurka daude, dituen akatsak gogorki salatuz. Alde eta kontra-ko arrazoiak komunikabideetan behin baino gehiagotan aipatu direnez, ni ez naiz horietaz zuzenki arituko. Ostera, euskaldunen artean ohitura denez, bertsotan agertuko dut neure eritzia, gustatzen baldin bazaizkizue zeuek ere kantatzeko. Dakizue-nez, mitinak eta sermoiak aspergarriak gertatzen dira; eta zertxobait alaitzeko, bertsoek lagun dezakete. Eta jende guztiak kantatzen badu, hobe.

Bertsootarako aurkeraturiko doinua, Xabier Amurizaren "Euskal Herritik aparte" delakoarena da. Ba dakizue: Bertsoak ez dira irakurtzeko, kantatzeko baizik.

Hirurogeitahemeretzi mendea zaigula hasi, Euskal Herriko enda zaharra oraindik da bizi. Ez dezagun bada, etsi!, geroak baitu merezi Geure nortasuna irabazi burrukari eutsi!

Hor dago Estatutua, erdi sekretuz lortua, orain nahi dute izan dadila denok onartua. Zaratoka agertua begi barruan sartua medio indartsuz propaganda ta txanpainaz hartua

Uzederena da poza izanikan bera jueza, Suarez habila engainatzea ez baita erraza. Azaltzea da nekeza nola litekeen gauza Konstituzioa ukaturik onartzea aisa

Estatutua medio, ni neu ez naiz ezer fio, baietza eman behar zaiola etsaiak baitio. Guretat ez du balio esaten dut nik serio bestela gure Nafarroari agur eta adio

"Estatutua harturik presoak omen librerik" horrelako esloganak ere dauzkagu entzunik Horretan ez da dudarik; Soria hantxe utzirik, Nanglarizko gartzela berria ez dute hoberik

Errefuxiatuak kontuz, ibil daitezela zentuz Frantziako jendarmengandikan oso urrun zainduz Zeren edozein deskuiduz Giscard jaunaren aginduz gerta litezke harrapatuak biziaere galduz

Hau egoera makala! nolaez zimur betazala ikusirikan bigarren mailan euskara dagoela Aizu, euskaldun formala, lodia zein argala, euskara ez bada, zein duzu bada hizkuntza nazionala?

Demokrazia dela ta hamaika palo hartuta, oraindik ere berde-marroiak hemen indartuta Horrela dago paktauta Madrilekoak poztuta polizia autonomokoak ezer ez dira ta

Hainbeste jende kalean poliziaren aurrean guztiok errefuxiatu eta presoan aldean. Huelga generalean Euskal Herriko partean guztiok bat egiten dugula gutarrak hiltzean

Bukatzeo funtzioa propaganda-kantzioa: erreferendua magiko da Hau inbentzioa! Hori bai afizioa, betiko botazioa. Baietz esatea bainohobe da abstentzioa

Ramon Garai

HARRI BATEKIN HASI ZEN




zure aurrezkie banketxea



BANCO DE BILBAO

gizaldiz gizaldi aurreratzen

TXILLARDEGIREN EUSKAL GRAMATIKA



Liburuaren aurkezpen publikoa aspaldi egin izan arren (Donostian, 1979-VI-27an hain zuzen ere), orain arte atzeratu dugu aipamena, liburuaren beraren kritikarekin hornitua emateko. Egun hartan jende pilo bildu zen Donostiako Udaltzeko aretoan, E. Knör, J. Intxausti eta

Txillardegiren artean eginiko agerpenera. Eta jende pilo diot zeren eta liburu bati buruz eta euskara hutsez eginiko aurkezpena berrehun bat pertsona hurbiltzea, ez baita azaren azpiko horria.

Dena den ez dut liburuaren aipamena egin nahi izan, beraren mamia hobeki eza-

gutu arte. Izan ere, hasieratik zenbait azaleko kritika ustel entzun bainuen, liburu sakonki ezagutu gabe eginak bestalde, eta ez nuen hankasartze berbera egin nahi. Udak eta berarekin ohi dakarren oporraldiak, ostera, liburu lodikote hori patxaraz eta goitik behera irakurtzeko aukera eman dit, eta aurkezpen-eguna urruntxo dagoela, orain iruzkin zentzu-nezkoagoak egin ditzakedala uste dut.

Liburuaren mugak

Sagarrondoari madariak egitea ezin eska dakiokenez gero, kritika zuzenik egiteko, guztiz komenigarri da, alde aurretik, zein helbururekin egin den jakitea. Muga hau Txillardegik berak agertu zizkigun aurkezpen-egunean eta, ezer baino lehen, berorik aipatzera noa.

Nagusiki Morfologiari ari dela esan behar da, berau esatea gehiegi ez bada ere. Dakigunez, gaurko Hizkuntzalaritzan ez da muga garbirik markatzen, Morfologia eta Sintaxia deitu ohi direnen artean. Edozertara ere, eta nolabait lehenagoko hitzez baliatuz, liburu honetan ez dela sintaxirik sartzen esan behar. Berez, sintaxi arloa Patxi Goenagak prestatutako "Gramatika Bideetan" sakonki aztertua dagoelarik, ez zuen izateko arrazoi handirik, gai berberaz beste antzeko liburu bat ateratzek, eta bai ostera haren osagarria prestatzek. Hemen azaltzea merezi ez duten arrazoiengatik, hala ere, denboraz oso atzeraturik dator Patxiaren liburutik, nahiz eta batera ateratzeko pentsatuak izan. Jose Luisek Morfologiari aritu nahi izan du, beraz, Sintaxia eta Fonetika arazoak sartu gabe.

Bestalde, egileak esan zuen legez, ez da ikerlan modura prestatua izan, helburu didaktikoz egin baizik. Hain zuzen ere, Euskaltzaindiaren hildotik abiatuz, euskara baturanzko bidean eman diren urratsak gramatika modura agertu nahi izan ditu. Alde horretatik, ba, liburuan Euskaltzaindiaren erabakien kontrako punturik ez da jarri, zenbait Kasutan Euskaltzaindiak erabaki gabe dituen puntuak jarri dituen arren, hala nola, hikako formei buruz ari den kapituluan (38.kapitulua).

Libururaren erakunde orokorra

Orohar, ongi ordenaturik datoz gaiak, puntuka eta zen bere numerazioarekin. Lau koloretara idatzia izanak, oso argitzen du zenbait arazoren azalpena, elementu desberdinen balioa garbi erakutsiz, hala nola deklinabide-atzizkien eta lotura-hizkien arteko desberdintasuna edo aditzetan parte hartzen duten subjektu desberdinen markak.

Modu berean, irudiek, eskemek eta koadroek laguntza handia ematen dute irakaskuntzari begira, era honetan lanaren helburu didaktikoa agerian jartzen delarik. Niri neuri, kasu, txit gustatu zaizkit

aditzaren azalpenetan denborari eta aspektuari buruz jarriko eskemak, ideiak argitzen oso lagungarri gertatu baitzaizkit.

Gauza berezi gisa beste puntu hau dugu. Noizean behin, puntu nagusien amaieran prezeski, aparteko koadrotan eta kolore urdinez, espainolez eta frantsesez eginiko laburpen txikiak ageri dira, zientzi aldizkarietan jarri ohi diren "summary" direlakoan antzekoak. Niri, egia esan, ez zaizkit ez lagungarri ez kaltegarri gertatu, lehenengo bizpahiru kenduz besteak ez baititut irakurri. Ez dakit inorentzat mesedegarri izanen direnentz, baina hor daude.

Zenbait hutsune

Nahiz eta liburua nahiko osoa izan eta euskara baturako egina izan, nik neuk bizkaierari dagokion aportazioa behar baino txikiagoa dela susmatu dut liburuan zehar. Zenbait kasu aipatuko ditut adibide legez:

- Zergatik --RUNTZ eta ez --RANTZ? Hori erabakita al dago?
- Leku-izenen kasuan ez da aipatzen a ez-organikoz bukatzen direnen arazoa, Bizkaian ugari direnak bestalde: Deustua, Iruñea, Bizkaia,...
- Nortzu, zertzu eta antzekoak zergatik Bizkairako soilik? (14.) Ez ote dira guztiontzako mesedegarri?
- Hitzak aipatzean, sarri ageri dira Bizkaiko formen hutsuneak. Adibidez, 33. kapituluan ez da **berba** aipatzen; 37.ean alde batetara uzten dira **ostera**, **osterantzean** (**ostantzean**) **behintzat**, **behinik behin** (**behinipenik**).



EUSKAL GRAMATIKA

TXILLARDEGI



Iparradeko (edo Ekialdeko?) gauzetan ardura handiagoa duela dirudi. Nolabait esateko, euskara batua Ekialderantz alderatu dagoela ematen du.

Erratei dagokienez, ongi inprimitua izan dela aitortu behar da, euskarazko liburu eta aldizkarietan ikusten denarekin konparatuz behintzat. Hala ere, zenbait oker txiki ba dira, eta asko gostatuko ez delarik, ahal dela hurrengo argitarapenetarako zuzentzea komeniko litzateke. Horrela, adibidez, ekidin eginen litzateke 32.gaian **bizi nintzen** eta **bizi izan nintzen** formen eskema denboraletan ageri den nahastea.

Ene ustez, bestalde, eta oraintsuko artikuluko batetan azaldu nuen bezala, **hainbat/adinbat** hitzak nahasturik ematen dituz gidoiak jartzean. Dena dela, arazo hau geroago eta finkatuagoz doala esan daiteke, UZEI barneko lanari esker. Baina orduko Txillardegiren lana inprimategian zegoen.

Hutsuneekin bukatzeko, hasierako aurkibidearena aipatuko dut. Atzekaldean aurkibide alfabetikoa dakarren arren, honetaz gain oso komenigarri litzateke, gaien eta azpigaien aurkibidea.

Hainbeste gauza interesgarri

Liburuan ageri diren gauza asko lehenik ere ezagunak bagenituen ere, oso baliagarri gertatzen da, gauza horik guztiok ordenaturik ematea, horrela bide batez, testu- eta gidaliburu bezala ere erabil daitekeela.

Bestalde, liburu osoan zehar argitasuna susmatzen eta eskertzen da: Azalpenak oso ongi eta eskematikoki emanak, adibidez ongi hornituak.

Ene ustez, hauxe da liburuaren bertuterik handiena: azalpenen eskematiko-tasunaren argitasuna. Labur eta zehatz.

Halaber, erabilitako iturriak zintzoki aipatzen ditu. Eta egileak behin eta berriro agertzen duenez, guk geuk ere esker berezia zor diegu Azkue eta Altube euskaltzaleei, berek aspaldi eginiko lanak oraindik ere oinarri finkoa baitira.


Gai konkretuen artean, diodan ezen oso gustura irakurri ditudala aditzaren aspektu eta denborari buruzko azalpena, arazo hori ongi argitu baitit. Ba dakit, jakin, René Lafon izan zela arazoaren lehen argitzailea. Baina modu didaktikoz azaldu duen lehena, oker ez banago, Txillardegia izan da, liburu honetan hain zuzen. Interesgarria da, halaber, hikari buruzko parte, nahiz eta landuagoa izan behar zukeela uste dudana.

Eritzi orokorra

Liburua bere osotasunean hartuz, guztiz positibotzat daukat. Aitortu egin behar dut, ezen hasieran ez ninduela gehiegi bete, "Sustrai Bila", "Oinarri Bila" eta "Euskara Batua zertan den" liburuen antz handiegia hartu niolako edo. Baina irakurrial, honelako liburu egin beharra zegoela ikusi dut. Euskarazko gramatika didaktiko eta batua behar genuen, eta ba dugu.

Gehiago oraindik; niri dagokidanez, eta ANAITASUNA honetako Gramatika-Sailaren ardura daramadala, artikuluko pilotarako gaia ematen didala aurkitu dut. Beraz, eta hau pozik diot, hemendik aurrera informazio-iturri bezala erabiliko dut sarri. Horregatik bakarrik balitz ere, baina, egiatan, liburuagatik beragatik, eskerrik asko Jose Luis.

J.R. Etxebarria



LIBURU BERRIAK

ABARRAK Kirikiño

Duela 50 urte hil zen bizkaitar idazle hau, Ebaristo Bustinza, euskal idazle herrikoia eta ospetsuenetariko bat. Mañarian zen jaioa 1.866an, fisika eta matematikak Madrilen ikasia eta Bilbon bizi izan zen EUSKALZALE, IBAIZABAL eta EUZKADI alderkarietan idazten zuelarik. Euskara herrikoia eta erraza zerabilen eta, purismoaren garaian, ospe handia lortu eta oso irakurria zen.

Bere artikulua eta idazlanak liburutan bildu zituen. Leher liburua 1918an argitaratu zen Abandon, ABARRAK. Bigarren liburua BIGARENKO ABARRAK deitzen da, Zornotzan argitaratu zen 1930ean, idazlea hil eta hurrengo urtean. Ipuinak eta gertaerak kontatzen dira, batzu jazorikoak, bizkaiera garbi eta sano batean.

1.966an liburu mardul bat argitaratu zen Kirikiñoaren idazlanak bilduz, hiru atal dituena: 1) ABARRAK, 2) BIGARENKO ABARRAK 3) ETA ABAR, lehenaren titulu orokorra daraman arren. Bizkaitar eta euskaldun guztiei gomendatzen diogu Kirikiñoareliburu hau.

LEGAZPI

TITULU HORREKIN, Legazpiako gueskolak eta bertako udalak babestuta liburu berri bat kaletar du egunotan. Euskaraz eta erdaraz egindako liburuotan Legazpia hiria hartzen da tematikatzat. Gaiak ugari dira hala nola, geografia, historia, ekonomia, demografia eta abar. Egileek diotenez, jende askok estudiatzen ditu besteen aberastasunak norberarenak ahaztuz edo gaizki ezagutuz. Herri bakoitzak, eskualdeok ere ba dute berea. Hori da liburu horretako helburu bat. Uste dugu oso erabilgarria gerta daiteke-ala ikastoletan haurrak bere ingurua nola den ezagut dezaten. Eredu polita ere Euskal Herriko beste udal barrutientzat.

LUIX MARI MUJIKA



ARNAS GAIZTOA.
ERROMANTZEEN AIRERA...

ARNAS GAIZTOA.
ERROMANTZEEN AIRERA...
Luix Mari Mujika

Luix Mari Mujika Lizartzan jaio zen 1.939an, sakramentinoa eta historian doktoratua da. Behar bada, azkenaldian liburu gehien argitaratu dituen idazlea da, zeren eta orotaz idazten baitu. Hainbat saiakera historiko idatzi ditu: AINTZNAKO SOZIOEKONOMIA (1.974, GIZARTEA ETA PARASOZIALISMOA (1.975)... Bilinguismoari buruz ihardun du frangotan, bi tomotako euskal hiztegi bat egin du DICCIONARIO GENERAL Y TECNICO delakoa, gramatika eta sintaxiari buruzko idazlan batzu ere argitaratu ditu... Eta orain, bere poesiazko bostgarren liburua argitaratu du.

Bere lehen liburua BIDE GIROAK izan zen 1.963an, bigarrena URDIN ETA BURNI 1.965ean. 1.975ean HITZAK EBAKITZEAN eta beranduago ZORTZIKO HAUTSIK. Orain, obra bi tomo batean: ARNAS GAIZTOA eta ERROMANTZEEN AIRERA... Lehena 1.976-an egin omen da eta bigarrena 1.977an idatzia. Sinbolismo kreatzaile eta surrealismoaren errotik omen doa Luix Mari Mujikaren joera, liburuaren azalaren arauera. Liburu irakurrita ikusi dudana zera da, poema neurtuak aski ongi, eta deus ere ez hoberik. Pseudoepika euskaldun bat nunnahitik dariola, topiko frango, eta euskal kanta epiko zaharren suntsidura. Irakur olerki labur bat:

Nafarroaren nahaspil

Nafarroaren nahaspil.

Nafarroaren aintzin!


*—Nola zabiltz
hain beltz ta isil?*

Nafarroak:

*—Ah. euskal odol sumin
batek dit min!!*

LIBURU BERRIAK

GAUZETAN



Koldo Izagirre

GAUZETAN
Koldo Izagirre
Ustela saila

Koldo Izagirrek hainbat liburuska ditu argitaratuak, guztiak poesia edo narratiba esperimental baten alorrean: ITSASO AHANTZIA, ZERGATIK BAI, OINAZE ZAHARRERA, GUARDASOL AHANTZIA eta GAUZETAN.

Esan daiteke azken liburu hau aurrekoaren. Guardasol ahantziaren, jarraipen bat dela. Lehen bost ataletan bederen, gauza arruntetan oinarriturik interpretazio mitiko eta fantastikoak bilatzen saiatzen da: Arboletan, Elurretan, Teilatuetan, Izarretan, Uretan. Haur irudimena errekuperatu eta gogoeta mitikoak eta fantasiak asmatzen eta sortzen dihardu, eguneroko objektu arruntak gaitzat harturik.

Burdinetan deitzen den atala desberdina da, irudimena ezik, espeteratuaren gogetak isladatzen baititu.

Orohar, irakurgarriak dira sei narrazio poetiko horik eta euskara erreza da gainera. Akatsik aipatzekotan, esango genuke testuak laburregiak direla. Izan ere ezin daitezke bestelakoak izan, baina nahi genuke Koldo Izagirre narrazio luzeagotan.

Céline Voyage au bout de la nuit



VOYAGE AU BOUT DE LA NUIT
Louis-Ferdinand Céline

Luis-Ferdinand Destouches, Céline delakoa, 1.894an jaio zen Courbevoie herrian, Seinealdean. Parisen iragan zuen haurtzaroa, Alemanian eta Ingalterran zenbait egonaldi eginek. Lehen gerla mundialean eritua izan zen. Kamerún aldean egon ondoren Frantziara itzuli zen ikasteko eta ezkontzeko. Edith Follet-ekin ezkondu eta alaba bat izan zuen, medikuntza ikasi zuen eta bere emazteaz bereiztu. Suitza, Ingalterra eta USAn lan egin zuen eta 1.928an Frantziara itzuli zen.

1.932an argitaratu zuen bere nobelarik lehena eta interesgarriena: VOYAGE AU BOUT DE LA NUIT, zeinari Renaudot saria eman baitzioten. Geroztik hainbat nobela eta liburu zientifiko argitaratu zituen: L'EGLISE (1.933) komedia, LA VIE ET L'OEUVRE DE SEMMELWEIS (1.936) saiakera, MORT A CREDIT (1.936) nobela. Europa guztian barrena ibili zen eta Lucette Almanzor bailarina-ekin ezkondu zen 1.943an. Bigarren gerla mundialaren garaian frango idatzi zuen: BAGATELLES POUR UN MASSACRE (1.937), L'ECOLE DES CADAVRES (1.938), LES BEAUX DRAPS (1.941), GUIGNOL'S BAND (1.944). Baina bere antisemitismoagatik eta nazien aldeko kolaborazioagatik istilu asko izan zituen. 1.944.eko udan ihes egin behar izan zuen Alemaniara eta urte betez Sigmaringen-eko kolaborazionisten gordelekuko medikua izan zen. Gero Danimarkaraino ihes egin zuen, hemen detentua eta gartzelan izandu zen. Bitartean Frantziako gobernuak kondenatu egin zuen errebeldean eta konfiskatu egin zituen ondasunak. CASSE-PIPE (1.948), FOUDES ET FLECHES (1.949) eta SCANDALE AUX ABYSSÉS (1.950) argitaratu zituen garai hontan.

1.951.ean Frantziara itzuli zen, amnistia medio, mediku gisa lan egiteko. Garai hontakoak dira FREERIE POUR UNE AUTRE FOIS (1.954), ENTRETIENS AVEC LE PROFESSEUR Y (1.955), baina batez ere D'UN CHATEAU L'AUTRE (1.957), NORD (1.960) eta RIGODON (1.969). Azken hau postu-moa, Louis-Ferdinand Céline 1.961.ean hil baitzen Meudon herrian.

VOYAGE AU BOUT DE LA NUIT bidaia hunkigarri bat da, benetan, udaberri-tik negura eta gauek egunera, bizitzaren bidaia, pertsonaren barne-errietan barrena bailitzen. "Voyager, c'est bien utile, ça fait travailler l'imagination. Tout le reste n'est que déceptions et fatigues. Notre voyage à nous est entièrement imaginaire. Voilà sa force. Il va de la vie à la mort. Hommes, bêtes, villes et choses, tout est imaginé. C'est un roman, rien qu'une histoire fictive. Littéré le dit, que ne se trompe jamais. Et puis d'abord tout le monde peut en faire autant. Il suffit de fermer les yeux. C'est de l'autre côté de la vie".

Louis-Ferdinand Céline-ren bidaia hau luzea da, gartsua, sakona eta egiazkoa. Bizitzaren bidaia desargituen du, lengoia eta narratiba iraulirik.

30.

	H	E	R	R	I	B	A	T	A	S	U	U	A	
T		R	O	S	A			U	L	U	K	A		E
X	I	R	L	A		L	I		A	G	O	R	T	U
I	K	O	A		L	U	R		V	E	R	D	E	S
K	A	I	N		A	P	A	L	A			A	S	K
I	R	A	D	U		A	T	E		E	B		T	O
T	A			B	B		I		E	N	E	A		G
A		A	M	A	I	A		A	T	E	R	I		U
O		K	I	L	O		A		A	K			P	D
T	A		N	A		B	I	N		O	S	T	I	A
A	R	S			U	R	T	E	A		I	X	A	R
E	R	A	M	A	N		O	G	I		N	I	N	I
G	A	R	A	Z	I		R	U		Z	O	K	O	A
I		T	R	A	T	A			G	U	T	I		K
	E	U	S	K	A	L	H	E	R	R	I	A	N	

31.

1	2	3	4	5		6	7	8	9		10	11	12	
13						14					15			
16						17					18			
19						20					21			
22				23							24			
			25											
26	27	28				29	30				31	32	33	34
35						36					37			
38											39			
											40			
41	42	43	44			45	46	47			48	49	50	
51						52					53			
54						55					56			
57						58					59			
60						61					62			

31. ZENBAKIA

LUZETARA: 1.— "Zu ote zare aitaren zarpigarrren? 6.— Nabari. 10.— Soinu-intensitateko unitatea. 13.— India-ko musika-tresna. 14.— Putzu (bizkaieraz). 15.—qua non (beharra den zerbait). 16.— Ez arrunt. 17.— Manatu (infiniteboa). 19.— Aditz laguntzaile bat. 19.— Kataluniako hiriburua. 21.— Motibo, zergatiko. 22.— izan (ihardun). 23.— Uztaile (bariante). 24.— Erronkari edo Salazar, adibidez. 25.— Hitz afirmatiboa. 26.— Ertafrika-ko herri edo euskal jaiegun. 29.— Logale. 35.— Nebraska-ko hiri. 36.— "Urteak.....luze du. 37.— Xamur (okelari dagokio). 38.— Deskontzertuaren seinalea. 39.— Esaten dute. 40.— Jan (ingelesez). 41.— Tente. 45.— Homosexualen antolakundea. 48.— Mari (El Caserío-ren heroisa). 51.— Ertasiako itsaso. 52.— Euskal Hymnoa (2 hitz). 54.— Leun (itsasoari dagokio). 55.— Italia-ko dirua. 56.— Itsasoan flotaturik aurkitzen den zerbait. 57.— Artzainen probisioak. 58.— Tontor. 59.— Nahiko, aski. 60.— Bere emaztea gaztu zen. 61.— Txokolatea ematen duen landare. 62.— Goralarrika.

GOITIK BEHERA: 1.— Aitalehen, arbaso. 2.— Une, mementu. 3.— Etxe baten parte bat. 4.— ".....hamarretan dontzeila nintzen...". 5.— Txalapartariak (2 hitz). 6.— ".....Askatu" (duela bi urte). 7.— Errusiako idazle satyriko (1.809-52). 8.— Ez posiblea. 9.— Germaniar letra zahar. 10.— Iparragirre-k eta Txegabara-k zutena ta Xabier Lete-k eta Txomin Pallen-ek dutena. 11.— Buztana bitan duen txori. 12.— Sovietar Batasunaren kreatora. 15.— Lehortu (infiniteboa). 20.— Disko konpainia. 24.— "Donostiako Errenterian dendar" (2 hitz). 25.— Niels....., daniar fisikaria. 26.— eta Magog, Satan-en armada. 27.— Ugazaba (gaztelaniaz). 28.— Taberna. 29.— Fabrikak. 30.— Lo egiteko leku. 31.— Oso (gipuzkeraz). 32.—-Aztekar (hizkuntz-familia, Ameriketako). 33.— Hegoekialdeko Asia-ko jaiegun. 34.— Oraindik. 40.— PNV. 41.— Baiona-ko liburudenda. 42.— Planeta bat. 43.— Aztiaren kartak. 44.— Buruan dena. 46.— Islamiar paradisu-ko emakume ederra. 47.— Pisu txikiena. 48.— Hilaren arima. 49.— Mendien ondoko lautadak. 50.— Lore gorri lurrintsu. 52.— Itsas-landare primitibo. 53.— ".... dakarrena...."

Bizkaiak beti izango du bere Kutxa



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza handi bat



Gure herriaren nahi eta izpirituaren arauera dihardugu

Horrexegatik, hain zuzen, Gipuzkoako 100.000 familiatik gora gutaz fidatzen dira.

Gipuzkoan bizi diren familia guzientzat, soluziobide aproposak sortzen ditugu beren Aurrezki, Kreditu, premiak... etab. konpontzeko.

Gure herriaren nahi eta izpirituarekin zerikusi estua duten hainbat ekintza ere burutzen dugu. Horrela, gure lurralde

honetako kultur, folklore eta kirol adierazpenetan parte hartzen dugu; euskal kulturaren aldeko ekintzak bultzatu eta babesten ditugu (liburu argitalpenak, literatur txapelketak, margolaritza txapelketak, kontzertuak eta koralak, hitzaldiak eta kultur asteak...) eta Euskal

Hiztegi Arauemailearen argitalpena bezelako proiektu garrantzitsuak burutzen ditugu.


**LA CAJA TRABAJA POR GUIPUZCOA
Y PARA LOS GUIPUZCOANOS.**